EGUNA

JEL

Zeure abeři - elia maite ezpa-dozu, zeure abeřia bez, eztozu maite.

Lgo. urtia | 61'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 2'gna. barikua | 15 eunen

Roosevelt'ek europar eřiei batzařera dei egingo ete dautse bakearen alde?

Mařuekos-luřaldea zaintzera. - Frantzetařak mugak gogortzen jařaituko asmotan. - Izotzaren lanak. - Liotta buruzagia Italia'ra bere burua osatzera. - Geroago ta langabeko gutxiago. - Beste izpařak.

"ALMIRANTE ANTEQUERA" CASABLANCA'RA

Paris.—Mediterraneo'ko itxasuretan ekaitzak sořtutako kalteak konpontzeko asmoz, Casablanca'ra sařtu da espanař erkaldařen "Almirante Antequera" kruzerua.

MAŘUEKO'ETAKO LUŘALDEA ZAINTZERA

Paris.—Nimes zaintzen dauden artileria'ko motorista batzuk Frantze'k Mařueko'etan duan luřaldea zaintzera joango dira. Mařueko'etako frantze-espanař mugatik 60 aneurkin edo kilometroz jařiko dute artileria, Tasa urian.

GORPUTZ-ERAMATEA

Paris.—Foch mariskal'aren gorputza gauza ez dutenen ařtera eramango ote duten diardute izpařingiak.

MUGA GOGORTZEN

Paris.—Guda-Zaingoko ministru M. Deladier'ek iragaři duanez, Frantze ego-aldeko muga gogortzea plano bereziak darakustenez egingo da.

LANGILE-EGUNA DALA-TA, ATZERATU

Paris.—Lorejla'ko lenengo egunerako izentatuta zegon erakusketa-zabaltzea, langile eguna dala-ta, atzeratu egin dute, Frantze'ko Gobernu ta langile batzen oniritziz ařtu da erabaki ori.

EZ DA "CANARIAS", NEWCASTLE BAIÑO

Londres.—Newcastle kruzeruari zegokion astr...zkenez Devonport inguruak zaintzen astea ta ortarako, antzeko kruzeruak oi dituzten, baiño bi aldiz geiagoko antiaereo baldeak bařuratu zituan. Kruzeru onek gaiñera Southampon itxurako kruzeruak baño askoz auřerapen aundiagoak ditu, izpařingiak diotenez.

Gora ta bera erabiltzeko eran jařiak ditu kañoiak. Egazkiñen batekin gudukatu beařik ba'lu, kañoi gora begira jařtzea eřaza du.

Ingalateřa'ko izpařak

Baldwin'en ordezko Chamberlain?-Burukide geyagok agintaritza utziko dute.

Londres. — Jorge eřegearen bureztunde-jai ondoren, Baldwin'ek bere agintaritzeari "aguř" egiten dionean, Gobernu'ko beste iru lagunek ere Baldwin'en bideari jařaituko diote.

Iru onek Ramsay Mac Donald eta Halifax eta Pailsham konde ordekoak dira. Aberastasun ministru Neville Chamberlain jařiko da Baldwin'en lekuan; zer esanik ez. Baldwin'en agintaritzako azken jarduna, loreilako 23'gařenez ingalandař eřegeai emango d'en bazkariarekikoa izango da. Uzte danez, Baldwin'ek eřegeak egin dion eskeiñi ospetsuari ez dio "polorik" egingo ta, oraingoz Ramsay Mac Donald'ek duan lekuan, Batzařeko lendakaritzan jařaituko duala Baldwin'ek, uzte du jendeak; Halifax'ek duan lekuan bestela. Hailsham oraingoz, Guda-Zaingoko idazkari da. Sir Samuel Hoare Itxasgo'ko burukidea ta Walter Runciman Salerosketa-Artezkaritza'ko lendakaria, Aberastasun-Zaingoan Chamberlain'eren ondorengo bietatik bat izango ote dan esaten dute. Runciman da ortarako begiz jotakoa, diru-arazoan asko dakiana dal-ta. Beste utsunetarako, zaleak eřuz dira.

Bake-otsak AmerikEtatik

DEI EGINGO ETE DAU ROOSEVELT'EK?

Londres.—Aspaldion eřiarteko arazo ta auzi jakingařiak emoten zuzen eta egitsu agertu dan "The Week" asterokuak diñoanez, laster Washington'dik Europa osoa ikaratu eban "Hoover,,'en ep-uzatzea baño izpař gordiñagoa elduko da.

Asteroko ořek diñoanez Roosevelt'ek batzařera dei egingo dautse europař eři guztiei. Batzar ori oraintsu Buenos Aires'en egin danaren antzekoa izango litzake eta europař eřiak alkartuaz bake, ogasun eta diplomaziaren al'eko izango litzake.

Gudari taldea otordua gertatzen.



Euzko-itxas-gizonak.—Ik bařiz, bařiketa gitxikin gure txokorako bidea artik, bestela...

Kokotxak xaltxan

Oraingoan Bilbao aurka, zerua jaikiko da. Ta ez da ařitzeko. ¿Zergatik?

Nere lagun gudari zinizo batek diona.

Alditan Bilbao'ko kaletan, zeruan baño izař geiago ikusten da

Izane, nik ez dakit gudaketan izařdun oik, nun gordetzen diran, baño Bilbao'n, ¡ori dek izařak erakutsi beařa! Atořetan, txamařetan, tx..pelian ..

Askok bařengo galtzetan ere ez ote damate?

¡Eskeřak izař oik, dizdizkořak ez diraла, bestela Bilbao'n guziak itxutu! ¡Oso itxutu gero!

卐 卐 卐

"Comité de la no intervención" deritxon guda itxas-ontziak beria egindu orain ere.

Txorakeriari utzi ta, ziur ziur zerbait gogoř egiteko ordua iritxi da, ezin egongo gera beti guda itxas-ontzi baten aurka ařantzakoa jartzen.

Ořenbeste gizonen galerak zerbait euři gogor artze bidean jartzen gaitu.

¿Zer ba? ¿Valantzi ta Kartejena'n ořen beste guda ontzi, katu zařak su ondoan bezela zakuřaren bilduř, ta gure itxas gizonak beren biziak desberdintasun ortan ioкatzen? ¡Ez!

¿Prieto'tař Indalexi ez da itxaso arazotako espanař ministroa? ¿Zer ařano egitendu ba? ¿Gortu edo itxutu ain beař bereko dan gauza ez ikusteko?

Euzkotařak izpařingi ta uřutizkiñez goratzeakin, ez degu ezer egiten. Ori gosia aztutzeko, gitařa jotzia bezela da.

Tira, tira okamarada, Indalexi ařen ez gaitzazu ořen Prieto utzi.

卐 卐 卐

Koipe nere lagun zařak, lengo egunian "bodega" oitako batean "mokolo" bat ařapatu dubela ta, badirudi ařtu dirala.

¿Koipe'k mokolo bat ařapatu? ¡Ta lengo egunian? ¡Ez, lagunak, ez; gaizki zaudete; lengo eguneko mokolua ez da lengo egunekua, lengokoari erantsia baño!

Koipe'k mokolo bat bakařik ařapatu duta au aspaldi oso aspaldi.

Ařezkero, berakin dabil, an da emen beti mokolo ori berakin dubela, asto zařak egosgogořtasuna bezela.

Koipe'n mokolua bakařa da, eten gabe beti berakin daramana.

Koipe'ri mokolo ori "pasatzen" zaio nian, ¡¡akabo Koipe, ořenak egin zun!!

卐 卐 卐

"Zine"tan "ganbeřismoa" nagusi dala zion, azkeneko "Euzko Langile"k.

Ontan gaude gu ere. Ez gera askotan juaten geranak, baña bai geienetan nazkatu ta irten geranak.

"Ganbeřismo" itza apal a bigunа derizkiogu; ¿"Kafrerismo" egokiago ez ote da?

Bilbao'ko ta Euzkadi guziko izen ona gaitik, neuři zořotz ta gogořak ařtu beařian dira gure agintari zintzoak.

卐 卐 卐

Agur, "Igeřa"; ařtu det Pando'tik bialitako zure idazki azala.

Ez nuen uste, neře txotxolokeriak iñork irakuřtzen zituanik, ta gutxiago España'ko guda oñetan.

"Odola emateko gertu gaude—diozu—, baña Euzkadi'gatik, Jel'gatik bakařik."

Zurekin nago ni ere. Oř Asturias ortan, naikua ta geiegi ixuri dezute noski. Aldi luzetxoa daramazute, uste baño luzeagoa, baña nik, zuek zure abeři maitera, guzien Euzkadi ontara biurtzeko, ¡ezer egin ezin idazki baldar batzuk ziřibořotu baño!

Orko beři zerbait jakin det, nik uste bezela gertatu da bilduř nintzan, ta bilduř onek ařapatu dit.

Onezkero laisteř emen zeratela, emen entzuten da, ta Jaungoikoak nik bezela nai deza'la. Ni badituzu orko beřiak biali, egin lasai batere bilduř gabe, iñondik ortarako zer egin al balezake, guzia egiteko, nere exkaxtasunean gertu naiz ta.

Ařtu ezazu onen bitařtez nere besarkada sutsu ta zintzoena.

Jel'pean beti.

ATAŘENE

GARBITASUNA-AGIRIAK IKUSI BEAŘA

Tokio.—Moscu'era dijoan embajadoriaren idazkari adirazleari bideko garbitasun-agiriak ikusi nai ez izateak lekarzken kalteak gogoratu nai izan dizkio uri ontan dagon Japon'go arazoetako ministruak Rusia'ko Gobernuari.

GEROAGO TA LANGABEKO GUTXIAGO

Berlin.—Naiz ta otsailako eguraldia zabal gořian lan egiteko egoki-egokiak izan ez, langabekoak gutxiagotzen asi dira. Il ortan 243.000 langabeko gutxiagotu dira. Langabekoak, 1.611.000 dira danetara, 1936'gnko. otsailako azkenez baiño, 904.000 gutxiago

LIOTTA BURUZAGIA ITALIA'RA BERE BURUA OSATZERA

Roma.— Graziani eřeg..ordekoaren aurkako ekiñaldia izan zanean, dakigun bezela, zauritu txařa izan zuan Liotta buruzagiak eta geroago izteř bat ebaki zioten. Orain, eguzkiñez, Addis-Abeba'tik Asuara'ra eraman dute-osakuntzak egin eta ondo-ondo osatzeko, Asuara'tik Italia'ra eramango dute orain.

DARANYI'RI ENTZUTEN ALDUN-ETXEA BETE-BETERIK

Budapest.—Daranyi ministru nagusiak lateřiko arteko gauř eguneko eřiketa edo politikari buruz jařdun beař zuala-ta, bete-beterik lotu zan asteazkenez aldun-etxea

Gero negařik ez leporatzeko, lateřian sořtzen diran gora-bera guztiai buru-belaři egon beař zajela esan zuan Daranyi'k.

IZOTZAREN LANAK

Varsovia.—Vistula'ko urak urpean ařtu ditu Thorn eta Kular bitařteko beko luřaldeak eta asko eři artean ez dago ařtu-eman eta eraman-ekařirik. Kalteak izugařiak izan dira.

Gudarosteko injenieru-taldeak ibaian kurutzetu dan eta urari bidea itxi dion izotz-zatia apurtzen jo bake diardue.

Nazitařen azpikeriak

Ipar-amerikařen izaera ta gizabidearen kaltez egundokoak esaten ditue

Berlin.—Ipař-amerikařen izaera ta gizabidearen kaltez egundokoak esaten ari dira aleman izpařingiak, gero eta zitalago.

Zabalkunde zaingoak dau akulu lan ořetan, eta "ereti ugaridun eřian" daben "eřindukera belaxka" kaxkar eta erkiña dala nazitař agindukerearen ondoan aleman eřiari sakatu eta iruntzi azi nai dautsol.

Erauntzi gogořean asi da Hitler berberaren izpařingi egunerokoa, eta ganeko ořialdean oři erdi guztian irudi andi bat agertu dau. New York'eko etxe garai biri oratuta tximiño edo matxango bat agiri da, izugařiz andia.

Tximu ořek oin bategaz Lateři-Batuetako ikuřiña zapalduta dauka, eta bere eskutzařakaz.

Bakea'ren uso ikurtzalea estututen dau, eta olibo-abartxoa mok..k jausi-erazten dautsa.

Tximuak bere urdail-alde uletsuan Dabi'ren izařa dauka, judutařen izař agerkalua.

Mařazki oen azpian, letra aundiz, idazkun uxe dau: "Ereti eta aukera ugarietako eialdean, King Kong bizi da oindiño. Kalteak egiten ditu, baña oraingoan New York'eko alkate izaeraz eta agintzidez."

Mařazki-irudi ori, New York'eko endoreak, Fiorello La Guardia'k oraindik orain egin dauan itzaldian esandakoari erantzuteko izan da nonbait.

Hitler'etzaz euxe esan eban: "Munduaren bakea ařiskuan eta galdu-gordean ipiñi nai dauan amesiari zoro bat dala, karmelitz-alkandoraz jautzia.

AROTZ BAT TXAŘA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAŘAGO DA BERA EZAGUTURIK ABEŘTZALIA EZTAN EUZKOTAŘA.

FRANTZE'KO DIRU GORA-BERAK

Zur jokatu dau Blum'ek

Londres.—Frantze'ko Gobernua'k diru-autuetan erabagi dabezanei buruz "Financial Thimes"ek auxe diño: "Ziur jokatu dau Blum'ek; Frantze'ko diruak Frantze'ra biurtuko dira."



Gudari taldea otordua egiten.

Begoña

IZPAŔ BELTZAK.—Auzo ontan obira ta dira Legina Uŕexola'taŕ Gotzone, 72 urtekua, eta Garzia Ibaŕamendi'taŕ Joseba Andoni, 16 urteko mutil gastea, Baita ere, Goiri'taŕ Julene, Lasa'taŕ Pantzeska'ren emastia. Beren obiraltze ta eleizkizunetan ostetza aundia izandu zan. (Goyan begoz.)

Laguntzen diegu atsegabian beren sendi tamaltsueri, eta zuk irakuŕle otoi beren gogo alde.

EZKONTZA.—Miren Neskutzaren elei zan uzteitu dira Beaskoa'taŕ Emili, Amz Arana'taŕ Terese neskatil politarekin. Beren ezkon onetsia, Deusto'ko aita Legaŕeta'taŕ Kuiril abaren gain egon zan. Zorionak, eta luzaroko izan dedila uztaŕi beŕi ori.

EUZKEL-IZENA.—Joseba Andoni euzkel-izenak ezaŕi diote ugurutzautzian Bustintza'taŕ Jon eta Montabietxea'taŕ Koldobike'ren seme jaio beŕiari. Zorionak euzkeldun guraso zintzoeri.

"GUDARI".—Poz pozik ikusi ta irakuŕi degu "Gudari" asteroko aldizkingiori, oso dotorea argitaldu dute beren eg-liok. Orain bere bizia iraunkoŕa izan dedin gustiok aldanik eta erarik onenian lagundu daigun. ¡Euzkeldunak! Erosi ta irakuŕi ta zabaldu "Gudari" asteroko begiko au.

Aixerixa

Durango

Zenbat eta egunak geyago igaro aŕituta aurkitzenaz. Eta ez neu bakaŕik, ezpada baita beste abeŕtzale asko. Eta zergaitik esango dozue aŕitutasunau? Ba ez da bestegaitik geure ixiltasunagaitik edo lotzoŕegaitik baño. Aspaldi onetan eŕi onetan esan leiteke ilda gagozala abeŕtzaletasunian. Ez dogu bururik agertzen. Ostera gure ingurukuak or dabiltz gora ta bera, euren lanak, euren egikerak eta euren izpaŕingi agerkerakin. Esan leiteke uri gustija euren menpian dagoala. Eta guk, abeŕtzaliok, uste dogu abeŕtzaliak garala esanagaz bakaŕik naikua dala. Edo Batzoki'ra noiz baiten juan ezkeruan bete dogula gure arduria. Ez, au ez da naikua. Zerbait geyago egin biaŕ dogu. Eta zer da ba gure arduria? Ori zetan esan be ez dugo. Abeŕtzalia ixatia askok uste dau dala alderdikidia ixatia edo Batzoki'ko bazkidia ixatia. Eta asko dira bere lagunak diralako eta bertan lagunak egoten diralako. Beste batzuk sendikuak diralako eta abar.

Gure zeregiña asko aundijagua da. Ez azaletik, ezpada baŕutik. Oso edeŕto diño EGUNA'k bere azal buruan: "Zeure aberi elia maite ezpadozu, zeure abeŕia be, eztozu maite." Eta egikera oŕekaz lan aundiia egingo dogu: ez bakaŕik gure aŕtian ezpada baita aurkarijen aŕtian be. Guk egin daigun geure egin biaŕa, eta beste geure ardurak itxi daiguzan geure ardurazkuak ez diranak eta berialaxe agertuko da abeŕtzaletasuna. Euzkerea erabali daigun sendijen, lantolan, txaldian, akeit-etxean salerosi gustijetan, edonun. Geure umetxuen aŕtian eta enparaukuen aŕtian be, zabaldu geure ele maitia. Ortik asten ba'gara laster asiko da benetako abeŕtzaletasuna.

Beste lotsagaŕi bat da izpaŕingijena. Ez da entzuten egunero beste didaŕik geure aurkarijen izpaŕingijena baño, ez da entzuten ez EGUNA, ez "Euzkadi", ez "Lan-Deya", ez "Euzko-Langile", ez "Gudari", ez "Tierra Vasca" eta abar didaŕ egiten bestiak lez. Nun dira gure izpaŕingijak? Eta saltzen ira ba Durango'n gure saltzaliak mutuak ete dira? Didaŕ, didaŕ egin biaŕ da euren antzera jakin erazoteko bai dagozala bertan be geure izpaŕingijak, eta gauza ez ba'zarie itxi aldebatera saltziari, egongo dalako nok saldu.

Onek ardurok Uri-Buru Batzaŕak aŕtu biaŕ leukez, eta agindu au biaŕ danari emon.

Egunokaz ez dogu gure Batzokijan ikusten lengaña aldra. ¿Zer gaitik? Len beste gudari dagoz, lengo biztanliak gagoz eta nun saŕtzen dira? Ez dogu uste iñora juan diranik. Bada orain Batzokijan ez dago akeitik, ez txolik, ez garagardorik. Au ete da zijua? Bai uste dogu, esan leiteke edarijen bazkidiak dirala ta ez abeŕijaren bazkidiak. Edaŕik egon naiz ez egon ez dogu itxi biaŕ geure etxera juatiari, bada beti ixango dogu zerbait egin biaŕa, eta geuŕ egun'an geyago.

Egin daigun zerbait geyago abeŕijaren aldez bere azkatasuna lortu gura ba dogu.

Eŕotari

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"El premio de su fidelidad." Olantxe ixenpurututen dau bere idazlana "Arakil'daŕ Luki" idazle treblak.

Euzkadi'ko Lagi Zaŕa'ren lagidija ondoen ulertu ixan daben alderdija, Euzko Alderdi Jeltzalia ixan dala diño. Lagidi ori onduen adiraldu ixan dabena be, Euzko-Alderdi Jeltzalia ei-da, ba. Eta onduen adiraltzeko zijorik geyen ixan dabezana be, bera ei-dala, euzko-abeŕija lenengo ezagutu ixan ebana be bera ixan zala-ta.

Euzko Alderdi Jeltzalia'ren irasaliak euzko-goguari begiratubaz Euzkadi'ren goguagañokua adiraldu ixan eban. Eta urtiak urte igazi ondoren berak eraldutako lanari zoztorak biłatuten asi ez dedixantzat. Lagi-Zaŕa'ren gogua ziran kistaŕtasuna, euzkotasuna ta eŕkaltasuna auŕian jaŕijaz, eleizgixonak eta lateŕi-aginpidetik at laga ebazan. Orde-orde, baña, eta Lagi-Zaŕa buruz au be. Elexeari azkatasun gustija emon eutsan Irakasliak. Eta azkatasun ori, ba iz, onetarakoxe ixan zan: Euzkadi'n Elexeak be e eginbiaŕ donia azkatasun gustijaz egin egijantzat.

Sabin Irakasliak eraldu ixan eban lana, ixugaŕijen aŕtian ixugaŕijen agertuten da. Eta eralguntza oŕetako ikuŕitza, onetantxe dago: kistaŕa ta abeŕtzalia. Abeŕtzalia baño lenago, kistaŕa. Sabin, bera be, alantxe ixan zan: kistaŕa ta abeŕtzalia.

"Tierra Vasca"

"Las lecciones de la Historia." Ona emen izpaŕingi onek lenengo zeŕendan argitaltzen daben idazlanaren ixenpuruba.

Napoleon betu ebenak Viena'ko batzaŕian eraldu ixan eben eŕi-etxerea oroimenetan josita erabili biaŕ litzaken edestiatala dala esaten dau.

Batzaŕ aretatik urten zan Europa'ko ... tidazkijak Europa'ri nastetik asko ekaŕi ixan ei-dautsa. Bereziŕasunaren auŕka egiten dan gustija, nastia soŕtuteko baño ez ei da ixan be ixaten.

Wells jakiŕunak be, auzi oŕetzaz, bere eretxija olantxe agertu ei-eban: izkuntza batekuak ez diran eŕijak; elerti bardingia irakuŕi ta ikasten dabenak eta gogayetan be bardingiak diranak, eŕketa bar diñaz jauŕtzea ezin leikena dala.

Wells jakitunaren atzalpenian ikusten dana berbera ikusten da euzkotaŕoi jazoten yakun jazokun negaŕgaŕijan be. Euzkadi'k bere elia dau, bere eleŕtija ta bere oŕurak. Alan be, beste eŕi batek, indaŕtsubagua dalako edo, bere menpe euki gura dau. Eta ezin uleŕtu dira, ez dabe aikaŕ ondo aŕtzen. Bardingiak dira, ba: elez, abendaz, eleŕtiz eta oŕuraz be, bardingiak.

"Lan-Deya"

"Anti-capitalismo. Producir para distribuir." Ixenpuru oneikaz argitaltzen da "Leor Bar" idazkiaŕen idazlana.

Dirudunen aginmena goirengo malara el duta ikusten dau. Eta dira-aldez asmau ta olaetaratu ixan diran lankayakaz lanari emon ixan yakan auŕeratasun be, agirijan daguala diño.

Langilekazko aŕtu emonetan, baña, dirudun ugazabeak, atze-aurreraŕ ibili ixan dirala be ikusten dau. Eta langilen eskubidiak yaoken neuŕijan ezagutu gura ez ixatiak ekaŕi ixan ei-dautse berala senratuko ez dan atzerakada au be.

Bereziŕasunaren areyua lez ikusten dau domubaren nausiŕasuna, baŕa gixatasunaren etsai lez be.

Lan-... aldez ez dau ezer egin ... an. Eta gixa... -ra oŕek, areyuak ekaŕi dautsaz. Dom-reak, gixonari, lanetik bizi diran sendijei, on baño kalte geyago ekaŕi ixan dautse. Auŕerantzian baña, orain aŕte ixan dan baño gixaŕte bardintsubaguak ixango dira, dom-ratik soŕtu diran okeŕak zuzenduko dabezanak.

"Euzkadi Roja"

Atzoko "Euzkadi", izpaŕingijak idatzi ebanari erantzuten dautsa

Eta "Euzkadi"k e aten ebana ontzat aŕtzen dabela diño, eurak gura dabena be orixe dala-ta.

Eta ontzat emonda gero aŕaturiko izpaŕingitik aŕtuta beŕidazten dauzan leŕuak onixek dira: "Orain paxi... gudea irabazteko arduratuta gagoz. Gudea irabaz-ondorea, eŕija ixango da bere eretxija agirijan imiñiko dabena. Eta eŕi-eretxi oŕi, bakotxak, yaokan lotsea ixango dautsala uste dogu.

"Españaŕen paxiotaŕtasunak, Euzkadi'ren azkatasunik ez dau iñoz be onetsiko, ez da eŕiketa azkatasun txikijenik be. Euzko abeŕtzaletasunak españaŕ paxiotaŕakin, ez dau ezer gura ixan, ... dau gura ta ez dau gura ixango be."

"El Liberal"

"Todo el poder para el Gobierno." Lenengo zeŕendu bijetan agertuten dan idazlanari ezaŕi dautsan idazpuruba da au.

Jaurlaritza'ren esanian jaŕi dagijala eŕijari eskatuteko agerpenik egin biaŕik ez ei-dago, emen, Bilbao'n.

Euzkadi'ko gudatzia, esanekua ei-da, ba, Jaurlaritza'ren esana ezetariko eragozpen barik egiten dal-ana

Beste eŕi batzuebetan, ostera, Valencia'ko Jaurlaritza'ri yaokan lotsea ixatia, loŕtuko ba da, loŕtu, ageŕpen oŕeik egitia biaŕekua ixan ei-da.

Bilbao'n, ez, ostera. Emen, Euzko Jaurlaritza'ri, yaokan lotsa gustija ei-dautsoe. Gauza guti oŕeikaz batera ikusi gura 'eukena, baña, beste au be ba ei-dala: gudari-eralguntzea, airbat lenen gurendara eruango gauzan eralguntza berezija.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa ta Araba'ko guda izpaŕak emotian esaten dauana da: euzko-gudarijak paxiotaŕai gogoŕ oldaŕtuten dautsela.

Itxasaldeko guda oñetan, Otxandiano aldian eta Orduña'n be, euzko-gudarijen ...-erunbilak, beste aldekuei gudari asko zauriŕu ta erail eutsezela.

Guda izpaŕakaz nastian ezkontza-izpaŕa be ba-imosku. Ezkontza au Elgeta'n ixan ei-da. Eta ezkontzaz buztaŕtu ixan diranak, onixek neska mutil bijok: "Itxaŕkundia" bosaleko tenientia dan Garizabal eta Agiŕe'taŕ Kepa ta Izeta eta Indart'taŕ Miren Nekane.

Nesk-mutil zoruntsugaŕi oneik, Donostia'kuak ei dira. Eta euren gurarija Gipuzkoa'n ezkontzia ixan ei-dala.

Zoritxaŕ askoren aŕtian zorijon bat eurekan ixango al dabe: zoritxaŕeko gudaldi onetan eurekandu ixan daben ezkontza-buztaŕija.

Donosti Buru Batzaŕa

"Kizkitza,,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti - Buru - Batzaŕ, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arbidearen jaŕaipena.

Oraindañokoa	2.452
Txabaŕi'taŕ Jon	10
Txabaŕi'taŕ Edorta	10
Zuya'ko itzaya	5
Laŕinaga'taŕ Martin	2,50
Laŕinaga'taŕ Gergori	2,50
Laskibar'taŕ Adiran	5
J. A. U.	25
Bitzgane'ko bat	10
U. Z. E.	10
Bitzgane'ko beste bat	10
Albeŕo'taŕ Augustin...	10
Oraindiño lauŕleko	2.552,00

ANDIK ETA EMENDIK

Alemania ta Inglateŕa asaŕe bidean.-Frantzetar paxistak. Kontrol-zuzendaritza Nagusia.-Alemani'ren nabarmenkeriak.-Gasoliñaren ordez ikatza.-Italiaŕen azpikeriak asaŕe b'de. - Beste izpaŕak.

ALEMANIA TA INGLATEŔA ASAŔEBIDEAN

Moscu.—Ingelandaŕ eta alemandaŕ Gobernuen aŕteko aŕtu emonak eta adizkidetasuna epaldugz duala adierazoten dau "Izvestia,,'k argitaldu daben idazti batek.

Batez be, Alemania'ren kolonia-eskabideari Inglateŕa'k emon dautson erantzunak asko zitaldu dauz alemandaŕak. Inglateŕa'ko izkilo-saltzeak be, urduri-urduri jaŕi dauz alemandaŕak.

Europa'ko Ipaŕaldeko ta Sorkalde-Ipaŕaldeko saloki ta azokak be, asaŕebide yakoez Lateŕi oŕei. Eskandinabia ta Baltiko'n zaiñek baiño zeiñek salbide ta erospide geiago euki dabiltz. Asaŕe ori agertzen asi da.

Gudaroste asiko ba'litz saloki ta azoka oŕeik beaŕeko yakuz Alemania'ri ta Inglateŕa'ri euron orniketarako. Oŕa korapiloa.

ESPAÑA'KO ACCION POPULAR IL

Madrid.—Paxisten aldetik jasoteko izpaŕak, Accion Popular, Gil Robles'en eriketa alderdiak bilera egin dauala Zamora'n diñoe, eta alderdi ori ezereztuten erabaki.

Alderdi oretako gudamutilak Franco'ren agindupe lotuko dira oso; auŕeko gudariak, soldaduzkan asiko dira eta besteak, Guardia civil bal'liran jardungo dabe.

FRANTZETAŔ PAXISTAK

Paris. — Frantzetaŕ eskojtaŕ aldra bat España'rako bidean zala, geldi azteko agindu dau Eŕi-zaingoko ministruak.

Paxistok, espeñaŕ euren lagun Moscardo keneralari ezpata bat eskeñitera joyazan.

KONTROL ASMOEK: KONTROL-ZUZENDARITZA NAGUSIA

Londres. — Eden jaunak kontrolari buruz azalpen batzuk egin dautsez izparlari 1.

Lisboa'ratu diran ingelandaŕ muga zaiñak, muga oŕetan egiten diran kontrol-lege austeen baŕi Londres'ko batzaŕari emon beaŕ dautsela adierazo da be, ta euron zeregiñoi ziatz be, ziatz beteko dabela.

Itsasoz ta luŕez, be, bastaŕak ondo zainduko dira, guk aukeratu doguzan zainpideak oŕetarako egokiak dira-ta, esan dan Eden jaunak.

Kontrol Landola Nagusi'ko lendakaria ingelandaŕa izango da ta Landola oŕetan beste sei ordezkari "Ez sartzeko Batzorde txikian" ordezkaria dauken sei lateriekako izango dira.

Ordezkari bakotxak ezer ezin erabagi daike, besteen autaŕkiz izan ezik.

ALEMANIA'REN NABARMENKERIAK

Londres.—Kontrolak soŕtuko dauzan zoŕak ordaintzeko bakotxari yagokona emoteko gertu dagoz Rusia, Frantzia ta Inglateŕa. Eta Alemania'k berak zer galdurik ez eukela España'ko gudan eta Alemania'ri asko ordaintzerik ez ei yagoko.

Inglateŕa'ko, Frantzia'ko ta Rusia'ko ordezkariak euren ebanuei eutsi eutsen eta kontrolai ezarten asi egin beaŕ dala iñoen.

Canarias ugarteak ez dabez kontrol oŕetan saŕtuko.

EURAK NAI DABENA EGIN?

Paris.—Kontrola azpikeriz paxista-lateŕiak loŕtu daben naste baŕegaŕi bat dala diño "L'Oeuvre,"k.

Lateŕien aŕteko egiune, itunbinak austen mutilak dira paxistok eta oraingo kontrol-asmuok, be, eurak nai dabena kontrol-zale buru eginda loŕtu dagien da.

GASOLINEAREN ORDEZ IKATZA

Valencia.—Atzo goizez gasolinearen ordez ikatza ipiñita belbilak zelan ibilten diran ikusten ibili dira.

Aituekin Nekazari-Zaingoko Arduraduna egin zan gertakizunok ikusten. Ori asmatu dabena Sorillo ingiñerua da, ta beroŕen asmakizuno azaldu euskun.

Eun kilometron 20 kilo aŕikatz erreten daben belbilak. Oaŕikusketok portuan betetako belbil batekin egin ebezan.

Gasolinea auŕeratzeko Madrid'tik Valencia'ra janarjak eruaten dabiltzan belbilik aŕikatzagaz ibiliko dira, Nekazari Zaingo'ko Arduradunak esan ebanez.

Bide oŕetan iru lekutan ipiñiko dabez aŕikatz-tokiak.

LEOPOLDO ALAS'EN BIZIA ESKATZEN

Madrid.—Oviedo'ko Ikastola Nagusi'ko Zuzendari Leopoldo Alas eriotzarako epaitu dabelako euren asaŕea agertuaz idazki bat egin dabe Kaudel'ko (Lituania) jakitunak, Jaun oŕen bizia eskatzen dabe.

Beste ufutidazki bat, be, aŕtu da ta auxe diño: "Oviedo'ko Ikastola Nagusi'ko Zuzendari Leopoldo Alas, españaŕ jakintzuaren apuŕak biotz-biotzean min emon dausku ta jaun oŕen bizia laga daiuen eskatu beaŕa dogu".

INGLATEŔA'N ASAŔE ITALIAŔ IZPAŔINGIEN ESAMESAK DIRALA-TA

Londres.—España'ko ta Abisinia'ko auziei buruz Aldundia'n Lateŕi-Zaingoko Idazkari-Ordeak eta laboristaŕ aldunak egin dabezan azalpenak dirala ta, asaŕe, be, asaŕe doguz Roma'ko izpaŕingiak.

Italia'ko izpaŕingien esamesak asaŕe bizia soŕtu dabe Inglateŕa'n.

ITALIAŔEN AZPIKERIAK ASAŔEBIDE

Londres.—"The Times,,'en aburuz europaŕ lateŕi azkaltzaleen auŕka Italia'k darabilazan azpikeriak asaŕebide dira.

Ingelandaŕ laboristen aldunen aurka italiaŕ izpaŕingiak diño ezanak goŕotogaŕi dira ta naste asko soŕtu daikez.



JATSI JASOTEKO

"Okeŕ": noŕ zarian be ez dakit, izpaŕingiz itz-egiteko biaŕ be ez dot, diñozuna jakitia naikua dodalako. Zuri erantzuten esan nebanak minduta nazala agertzen nauzala, ¿nundik atera dozu? ¿Zein esakunek dirautzu? Pozik kenduko do.., baña ez neuk, ez irakuŕi-azo dautsedan beste batzuk okerkorik ez dakusgu. Orainguan minduta agertzen zariana zeu zara, mat ikeri aŕtian, ilunez ilunago eziña nazala, eta Durango'n "gorabigi" ixenik erabilten daben iŕi-itauniak esango dautzunez.

"Zutuago" iraŕutsazala, dozun ulermenez, eŕaz igaŕi zegikian, eta nik zutunago jaŕi neban ezkero, zu zutunik zariala argi-asko esan neban.

"Bipil", "flor recogida" ez danik ez daustazu esango, euŕez erabilten da-ta, "Gara" lore ordez nik beintzat ez dot entzun, eta zuk bez, gara utzez azirik ez litxake ixango da. Garea loratu egin biaŕ da azirik ixango ba'da, beraz, gara lorea ez da gorakadea baño.

¿"Lore nai ezpa-dogu erabili jaŕi daigun "gara", "bigi", "bihi,,'ren ordez" esan zebanian, "gara" lorea ez zala esan ete zeban?

Erdi-egijak guzuŕik kaltegiñenak ixaten dira, eta zuk orainguan ez dozu gura dozuna baño beŕidatzi. Nik zuria dala-ta, beŕidatzi dodana zegatik ez dozu jaŕi? egoki-egoki zan ba.

"Zuk be indaŕ asko euki biaŕ dozu "Okeŕ" zutunduteko" zegatik diñozu? ¿Zeu sendo-sendua zaralako ala ni makala nazalako? Zure esakera ori erderada utza dala esan biaŕ dot ba. Zu be indaŕtsuba edo zara "okeŕ" zutunduteko da euzkera-euzkerea. Indaŕa euki ez indaŕdun ixan bal. Eta gero, ni iluna nazala esan.

¿Nire ilunak oŕenbeste bilduŕ emoten dautzu? Izpaŕingiko a al gustijak, ez dabez gustijak irakuŕi-biaŕ, saŕtzen gaya be ez yake, eta zerbait eurentzeko uleŕgatxa danian, edo itxi, edo itandu. Bigaŕen au ikasi gura dauan edo zeñek iñarduten dau, eta asko dakijanak asko itandu daualako baño ez daki.

"Arto bero usaña" esango daustazu, baña zerbait ikastjaŕen, niria irakuŕteko pozik ixaten diranak, jaupari ta lekaide-aŕtian be bal-dazaudaz.

Zure idazkija zeuretzako argija ixarda, niretzako iluna ixan dala autoŕtzen dozu, beintzat ez dodala uleŕtu diraustazu. Nire uleŕmena ixan be motela da.

Zutunik zariala orduan esaten neutzun gauŕ baña zeozertzaz jausita zi-riala be esan biaŕ dautzut, bestelan "jatxi jagiteko" ez zeban esango, "jatxi jasoteko" baño.

¿Ez diñostazu ezer "bat baŕi ta bi baŕi" tzaz nozun baxen mate nozula, eta idazki edeŕak idazten dodazala esanda?

Au ba, euzkeraz dakijanak eŕaz ulertzekua da, eta "kontu kontari" erderaz dakijanak baño ez. ¡Eta zenbat onetariko gure izpaŕingijetan! Ez eban Arana-Goiri'k okeŕik esan asko-asko, euzkerarik adiraldu-barik, euzkeraz idazten asi dala esan ebanian.

"Bigi" lora ordez erabiltia nire asmua ez da. Euzkeltzale-Bazkunak elizijak dakaŕ, eta "Kirikiño" zanak be eliztijau, bein baño geyagotan goretsi eban.

Onakoxe autuetan berarekin nintzala, niria Arana-Goiri'ren arabak ziaztxu erabilten dodazalako, batek baño geyagok ez dabela gura, esan eustan. Eta au beste batzuk be aŕuten emon dauste.

Euzkeldunak, urtiak urte, batek-bai-daki zenbat urtetan, ez dauz irakasle okeŕekuak baño ixan, eta oraindiño euzkel-iztegi bat bera be ez dogula, itxi gagixuz lanian.

Ni, onezkero, nazana ixan biaŕko naz, eta naz... -raz agertu be, gixakija ixakerea da-ta.

Azkenengo esakun au be, ¿iluna ete-da? Zuretzat beintzat, ez. ¿Eta beste ainbat eta ainbatentzat iluna dala-ta, onelango eratijan be idatzi ez?

MONTXOŔ.

Gudaletxeko eta guda oñetako gudariari

Aldi gutxiren buruan EUZKELDUN IRAKUŔLE BATZA "EGUNA" izpaŕingiari eusteko jaio beŕia dan batzaren izenean ikertuko zaituzte, Eraltzale Batzordeak.

EGUNA euzkel-egunkariari eusteko sortu dan Batz onek, lenbiziko lanari ekingo dio euzkeldun gudariak ikertuaz. Guda oñetan euzkel-idazleak izendatu, arpidedunak egin eta abar.

Euzkeldun gudari kementsuak, aldizka guziok ikertuak izango zerate, EGUNA lenbiziko euzkel egunkari abeŕtzalearen berotasunaz eta zuen laguntza itxaropenez.

EUZKELDUN IRAKUŔLE BATZA.

(EGUNA izpaŕingiari eusteko) Eraltzale Batzordea.

Guda zaingoa

Guda-Osasun Burutza Nagusia

Odol-gexotegietarako Sail onetan artu ditugun emokunak.

Oñetako egile ta salerosle batza, Bilbao'koa 250 lauŕleko; "Elkano" ontziko gizonak, 141; X. X., 3.50; Gintza igituak, zira-tegia, 161,50; J. del Hoyo, 50; Bayon margolaria, 245.70; Garamendia'taŕ Andoni, 150; Bidauŕrazaga'taŕ Perderika, 25; Ugarte'taŕ Nikola, 5; Alfonso Blanco, 25; Bilaro'ko gexoetxea, 50,70; Evencio Viñas, 10; Las Carreras'eko Sozialista - gastetxuak, 25; Justino Acebal, 25; Bayon margolaria, 255; Montañes batek, 5.222,36; Zabalbide gudataldea, 2'gn. sala, 152,50; Jose Peña ta Francisco Moreno, 52,50; Alfonso Santamaria, 10; X. X., 70; U. G. T. 5'gn. gudataldekoak, 583,70; Sindicato "Nacional" Ferroviario (Bilbao-batzaŕa), 2.124,65; X. X., 233; Gurutzeta'taŕ Emili, 20.

Bilbao'n, 1937 epala, 10'gn.

IZTEGI TXIKIA

Euzkeraz irakurtean oituta eztagozan euzkeldunak itz asko ez ezaunak aurkituko ditue, noski. Eta orain iztegirik zuzentzea gaitza dan ezkero, irakurleok IZTEGI TXIKI au bitaŕte dala beaŕ izango dabezan azalpenak izango ditue.

Azalpenok astean bein, oŕetarako izentauriko egun baten, egingo dogu.

Beraz, ba, itzen baten ikurpenik edo esangurarik yakin nai ba-dozu, izpaŕingi txatal auxe bete, ebagi ta itxi bako idazkazal edo sobre baten, zentimo biko ikuŕatz edo sello bategaz zuzenbide aonetara bidaldu egizu:

EGUNA
Correo, 17, 2.°
BILBAO

Itz ez ezauna	AGERTU DAN			
	Zenbakija	Ingoskia	Z fendea	Leŕoa

Bidaltzailen izena ....
Eŕia ....

ATZERRIKO IZPARRAK

...ustria'gaz nazitaŕak egin nai daben egiuneaz, Mussolini'ren eŕiak estutasunik izango dau

Alemanen gose eten-bakoa. - Italiaŕak Guadalajara'n. - Laŕu fiñen salketak. Katoliko zabalkundekoak Paris'ko erakusketan. - Sena'ren urak ibituaz. Langillien opoŕa dala-ta. - Beste izpaŕak.

...ALIAŔAK GUADALAJARA'N

...—"Pradva" egunkariak Va... daukan izpaŕbiltzaleak, Gua... aldean, italiaŕ guda-sail osoak ... adirazten dau.

... oin oŕetan italiaŕ batzuk eŕ... menpe jausi dira, eta preso ar... Euron sala igazi dan ilaren 22' ... zala Cadiz'era aitoŕtu dabe ...

...AŔU FIÑEN SALKETAK

...ngrado.—Laŕu fiñen salketa na... onen 3'gz, asi zan uri onetan, ...oretsua izan dogu. Lenengo ...bietan, 1.500.000 dolaŕeraño igo ...salerosketak.

... ingelesak, armiño laŕuak ugari ... zituen, 292.000 dolaŕ balioz. Jorge VI eŕege baŕiaren jayak dirala bide izan ei ditue erosketa oŕek.

ITALIAŔEN ADIZKIDE ONAK NAZITAŔAK

Moscu.—"Izveztia" egunkariak Itali eta Alemani'ren aŕtu-emon kutunak azterkatu ditu, eta alemanen adizkidetasunak edeŕak urtengo ei dautse italiaŕ alkonda baltzai.

Austria'gaz nazitaŕak egin nai daben egiuneaz, Mussolini'ren eŕiak estutasunik izango ei dau.

ALEMANEN GOSE ETENBAKOA

Moscu.—Alemania'n jan-kontua gero ta laŕiagoa dala diño "Pradva"'ren Berlin'go ordezkariak. Jakintza-aldizkingietan bere, arazu onetzaz artikulu asko agertuten ditue.

Der Reisende Kaufman aldizkariak, mantekila ordez azukre ugariago aŕtu beaŕ dala diño. Frauencischer Kurnier' ek, oloa, garagaŕ eta zekalea aŕtu barik, aŕtoa dala onurakoŕago diño, beste laboreak baño aŕtoak euneko 60 geyago emoten dauala-ta.

Lengo geŕateko janari erak baŕiren baŕi ezarteko be ba-diñoe. Oŕela ekonomi andiagoa egit...ko bidea izango leukela-ta doistaŕ eŕiak.

Teia eta akeita gexoei bakaŕik emoteko eskatzen dabe, eta ori, be, sendagileak ondo arakatu ondoren.

KATOLIKO ZABALKUNDEKOAK PARIS'KO ERAKUSKETAN

Paris. — Uri onetan aurten izango dan Erakusketa'ra katoliko-siniamen zabalkundekoak be erduko dirala adirazi dau Fides izpaŕetxeak.

MUSSOLINI'REN IBILERAK

Roma.—Italia'ren guda-indaŕak nolakuak diran agertuteko ei da Mussolini'ren Afrika'ra osterea.

Frantze eta Inglateŕa'renak makaldu nairik eta bidebatez Apirka'n eta Mediterraneo'n italiaŕak nai dituen zerak azaldu beaŕez ei dabil oŕetara.

SENA IBAI-URAK IBITUAZ

Paris.—Sena ibayan beerantz egiten asi da. Aste onen asieran genduan aŕiskuaren bilduŕa ez dogu, beraz, ainbestekoa orain.

LANGILIEN OPOŔA DALA-TA

Londres.—Atzo, autobusetako langileak opoŕ egin eben, Escocia aldean, eta lenengo 5.000 gizon ziran aŕen lan -utzi ebanak, gero 10.000 giñora jo dabe.

Scottish Motor Traction baltzuak, huelga ori ez dala zilegi ta bidezko esan dau; bai, ostera, alde aretan komunistak darabilezan azpi-jokoak dirala-ta.



Eŕusia'ko bakaldunen jauregia izan zan onako au, euren aldian.

...u-gayak diraia-ta

Alemani ta Itali'k poŕot

...a.—Estaduen batzordeak atzo ... zituen len-gaietazko ikasketa ...

...mania'ren utsunea ez dau iñork ... argiz ikusi. Etekiñak egiteko ... gauzak ez eukitea ebala bere ... guztien ituŕi esan eroian, eta ... bere buruz eta kabuz jokatu ...

... osabidea, berak zituen koloniak baŕiro emotea ai-zan. Bañan oraingoan argi ikusi danez gai oŕek ezezik, egoki izango litzakiozan luŕaldeak eskuratu nai ditu bere gudontziak non geldi ugari izan dagien.

Bere adizkide kutun Italia zitala be, ez da erdu izan bilera lan oŕeitara.

Len-goi edo materias primas artu eta eroste auzi oŕek, atal bi daukaz, batzaŕaren iritziz: ekonomi-arloazkoa, eta ordainketazkoa.

Ekonomi-arloazkoa, eŕi batak besteari ezaŕitako oztopo eta eragozpideak gazatu eta bigunduaz lortu leiteke.

Ordainketa-arloazkoak, alkaŕen ondorengo jokaera bi ditu. Gai oŕek ordainduteko bide eŕezena, estaduen dirua aldintsu eta ziuŕa izatea da, banakaritza sendoa izanez.

Ori irixteko ordea, estaduak alkaŕegazko artuemon estuak izatea beaŕeko da, eta ez bakoitzaren naikeri bidez eta arauz, bakaŕik jokatutea.

...ANA BAT ETA EGIÑA BI

...ortuko ete ditue?

...—España'ko auzian ez sartze... ...moz emon dabezan legeak aus... ...bezanak iru urteko espetxez ta ... ilraz zigortuko dabez Italia'n ... baten aitzen emon dabenez.

"L'Humanite"ren jardunak

...ear bezelako kontrolik izan ezik zaindu ...oker egiñen beŕi ematea baiño ez da gudontziai dagokien lana

...—Otsailako 25'gaŕeneko "L'Hu...'k P. Vaillant Courtier'en idazlan ... lenengo oŕian. Auxe dio idaz...:

...aldaŕak erasoka ta auŕeraka diar... ...ren ere, azkatasun eta bake zabal... ... ez dira ain egok-gokiak ere ... jaso oi ditugun izpaŕak.

... Frantze'k bere muga itxitzeari ... dio, Franco'ren mendeko kaietara, ... pila ederik aldean dutela, paxis... ...ak saŕtu ta saŕtu jaŕaitzen dute. ... egun gutxi oraindik Queipo de ... berak esan zuan erbestetaŕ gu... ...en zai zegola. Epaila'ko seigaŕen egun aŕterakoa paxistaŕak luzatuko egingo zutena, auŕez begiz jotekoa zan, eta guk alaxe jo gendun.

Beaŕ dan bezelako kontrolik izan ezik, zaindu ta okeŕ egiñen beŕi ematea baiño ez da gudontziai dagokien lana.

Ori bide, ezpaiñean euki beti amua, balitzake ingalandaŕak bide ortatik jotea ta Franco'rentzat diran ontzi guztiai bidea zabal ustea. Italiaŕ eta alemaniaŕ gudontziak besterik jokatuko luteke. Kontrola paxistaŕak oi duten basatikeri guztiaz egingo luteke ta bai gogoak ematen dioten ontzia laisteŕ asko ondora jaurti ere.

Oŕ joango dira Portugal'eko mugara eun eta beŕogetamaŕ gudontzi—asaldari talde edeŕa!—. kontrola betetzera? "L'Oeuvre" izpaŕingian Genevieve Tabouis'ek egindako galdera jaso genezakegu guk ere: "Azkenean ere, arauzko gobernuaren aurka diarduten asaldariai laguntzeko izango ote da kontrola?"

Guk, geurez, ziur-ziur gaude Hitler eta Mussolini'k, kontrola, orixe siñistula, on tzat aŕtu dutena.

Lan dagigun beraz, jo zoŕoan dauden langile ta azkatasun-zale guztiak itxaŕtzeko. Ez dedi'la izan kontrola geure buruaren irain nabarmena."



Formosa Argentina'ko uri edera. N oizin benera iat-ikara andiak izan oi-dira luŕalde oŕetan eta kalte andiak egin.

ZER DOGU KONTROLA?

Kontroloi zelan egin eta zer dan.-Eragozpen batzuk kendu ditue baña oraindik asko geratzen dira.-Armak bialtzea irabazpide andia izan lei...ta kontrol-legeak apurtuko dituenak izango dira.

Londres.—"Ez Sartzeko Batzordea'ren" erabagiak España'ko muga ta itxasoak zainduaz, beteteko asmoz dabiltzan 27 Lateŕiak, euron aŕteko kezkak aretu dabez ta kontrol-legeoi beteten il onen amairugaŕenean asiko dira.

Eragozpen batzuk kendu dabez, baiña oŕen kontrol-lege korapilotsu oŕek oindiñokaŕen eragozpen asko izango dauz.

España guztiz esitzea danik ezin esan daike, 27 Lateŕien itxasontzientzat baño ez da-ta. Beste lateŕietako itxasontziak be, ikuskatu dadik... ta eurei yagokuen ikuŕiña ba-daruake, juaten laketuko yakoe. Oŕa alderdi batari nai besteari laguntza bialtzeko-bidea.

"Ez Sartzeko Batzordeko" dan lateŕi bateko itxasontziak España'ko itxasoetan saŕtu orduko, batzoŕde oŕen ikuskariorik ez daruala ta kontrol-legerik ez dabela beteten egin daigun. Orduan itxas-zain taldeko gudontzi agintariak beste ontzi oŕetako ontziburua. Kontrol-legea austen dabela, itxasontzioi dan lekuko Gobernua'ko adierazo beaŕ dautso.

Itxasontzi ori dan lekuko epaikariak epaituko dabe kontrol-legeoi ausi daben ontziko kapitana.

Kontro'...sjak oŕetara izatea on ala txaŕ izango dan ezin jakin daike aldi luzea igaro aŕte.

Guda-gai ta guda-izkiluak España'ratzea irabazpide aundi izan daikiue oŕetan asten diranei ta irabaziaŕen kontrol-legeok austea ba-daike norbaitzuk.

"Ez Sartzeko Batzordeko" lateŕiak nai ez dabenaŕen paxistak eta eŕizaleak batek besteari itxasoak zaindu ta esitu daikiuez ta lateŕi oŕein eritxirik ez dabe nai onaŕtu.

Lateŕi oŕeik gogo onez ta asmo zuzenez jokatu ba-daike, kontrol-asmuok beteko dabez, bestela baiña alpeŕik dirua eralgitea izango da kontroloi. Urtean 300.000 libra esterlina kostako da kontroloi.

Orañarde erkaldaŕei ta asaldariei geien lagundu dautsen lateŕiak, alderdioi laguntzen gogait-eginda dagoz aurrago, itxura dagonez, Italia'k, be, gudariak España'ratzea galerazo eben-ezkero ez douala gudaririk España'ratu azaldu dau.

Lenago aitzen emon danez, orain "Ez Sartzeko Batzordea"'k asaldariekin eta erkaldaŕekin dagozan erbestetaŕ gudaŕi guztiak España'tik atara nai leukez. Au lortzea España'ra guda-gai baŕiak bialtzea eragoztea baiño zallago izango da. España'n gudatzen dagozan erbestetaŕak euron gogoz ta euron "opoiñoak" ald...tzden etoŕi diran -ezkero, euron lateŕi edo Estadu...gintariak ezaŕiko leuskiezan zigoŕei ez leukioe jaramonik egingo.

Beste autu batzuk erabagi daitezenean, erbestetaŕok erbesteratzeko, be, lanak egiten asiko dira "Ez Sartzeko Batzordekoak".

Orain erabagi beaŕ diran autuok Canarias ugarteen kontrola, ta kontrol-gastuak Alemania'k zelan ordaindu daikezan doguz.

Orañaŕte "adaŕ-jote" uts izan dan "Ez Sartzeko Batzorde" oŕen erabagiak ezer lortzen daben begira doguz geienak; oindiñoko kontroloi auŕerakada aundia danik ezin uste izan daike.

EUZKERA ALDEZ

Irakasi bakotxari bere elian

Idazti Deunetan irakuŕte... da antxiñako Deunak euren itzaldijak egiten ebezanian, eta euren entzunleak izkuntza mueta askotarikuak ixan aŕen dan danai itzegiten eutzela bakotxari bere elian eta danak ulertuten ebezala euren itzaldijak Goikuak alan nai-ebalako.

Euzkaldun utz...tzak diran eŕijetako irakaslerik geyen-geyenak bere orixe egiten dabe, izkuntza baten itzegin, nai-ta bere entzunle edo ikaslerik geyenak izkuntza ori ulertu ez, eta oraingo irakasliak antxiñako Deunan lez alatz edo "milagrorik" ez'dabe egiten eta geure ikastoletara bidalduten doguzan neska-mutikotxubak uleŕtu barik gelditu biaŕ

Euzkaldun neska-mutikotxu euren gastaruan bilduŕtu eta buru austerik andijenak emoten dautsena ixan da euren irakasle elderduna. Auxe ixan da neska edo mutikotxu gastiari bilduŕik andijena emoten ixan dautzana eta daŕ-daŕka ikastolako atadijan euren oñak imiñi orduko jarten ixan dabena, ez biaŕ bada irakasle danak bijotz gogoŕeko edo okeŕak ixan diralako, ez'bada euren itza... aren gastetxubaren belaŕijetan urebijoaren otsak lez bat bere uleŕtu barik bilduŕtuten ixan dabelako baño.

Tamalgaŕija ixan da benetan geure eŕi euzkaldunetan igaroten ixan dana —eta oraindiño be igaroten dana—, bada geure baseŕijetako euzko neska -mutiko geyenak ikastolan ikasi daben apuŕak eurak bat bere uleŕtuten ez'daben izkuntza baten ixan da. Askok uste ixango dau uleŕtu barik ez'dagola ikasterik, baña euzkaldun neska-mutikotxu geyenak orixe egin dabe, ikasi dabena eurak uleŕtuten ixan ez'daben izkuntzan irakatsi-ta.

Era oŕetan egin dabez euzkaleŕijetako gasterik geyenak euren ikastaruak, irakuŕi zer irakuŕten daben ez'dakijela, idatzi bardin eta abaŕ, dana gaixki ala ondo egiten daben ez'dakijela. Au ikusita askok esaten dabe euzkaldunak ikasgatxak edo buru gogoŕekuak dirala, baña geure neska-mutikotxubak auŕez erakusten dabe eurak ulertuten ez'daben izkuntzan irakasi aŕen buru argikuak dirana.

Euzkaldun utza dan sendi batentzako tamalgaŕija da benetan bere neska-mutikotxubak bidaldu biaŕ ixatia eurak ulertuten ez'daben izkuntza dun irakaslia dagoan ikastolara euretan bere lenengo ikastaruak egitera. Oŕek euzkera baño ez'dakijen neska-mutikotxubak zotin andija egingo dau irakaslijak iŕaunen bat egiten dautzanian berak ulertuten ez'daben elian, eta onen uŕengo ¿zelango begirakunia egingo dautze erderazko idazkijai?

Gixon eta emakume onak eta argijak ixateko oñaŕirik onenak aŕtu biaŕ diran aldija ixaten da gastijak ikastolara dabiltzan aldija, baña ¿zelan aŕtuko dituz onaŕi onak irakaslijak diñona ezin ba'dau uleŕtu gastijak, ez'da irakaslijak gastijak diñona?

Orañaŕte ixan doguzan agindari gustijak jakin dabe gustijau, eta oŕexegatik egiten ixan dabe alegin gustija geure euzkera matiaren auŕka, baña euzkaldun semiak urten dabe eurak lotuten ixan dabezan kate-petik eta ezkeŕak Euzkadi'ko agindari aguŕgaŕijai emendik auŕera ixango doguz euzkerazko ikastola eta irakaslijak, euretan geure seme-alabatxubak egin dayezan euren ikastaro gusti gustijak.

TXIŔI.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu baga esan oi-eban Arana Goiri'k.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Italia'k ostu eta saldu dituan Bilbao'ko ontziak dirala-ta.-Lusagar azia guztientzako lain dagola jakin bezate. - Izendatze bařiak Guda-Zaingoa'n.-Lan gabe dagozanen argibideak biali beařa.-Astartean urtengo dabe umeak Oleron'erantz.-Txakuřak txal egin nai zituanari, zigor aztuna.-Beste izpar batzuk.

Nekazaritza

Ageřaldiak

Galdames'ko alkatea, Gipuzkoa'ko nekazarien lendakaria, "Uriber" etxekoak, Daniel Matau, Pantaleon Ferrero, Basauri'ko euzko-alkartasuna'koak, Lemona'ko Lugin alkargoa, Gastelu Elexabeitia'ko udala, Durango, Lemoniz, Gatika, Getxo, Markiña, Gaminitz eta Barakaldo'ko Udalak.

Patata azien banaketa esturarik baga

Goizean oso goiz eldu oi dira egunetan abindutako luzagař-aziaren agiri bila Zaingo onetara, bañan beař izan bage, ordea.

Baimen agirien banaketa ez dogu egingo lenengo datořenari emonaz, ez. Lenengotan esan bezela, egunean izendatutakoei soſik emongo dautsegu.

Ořegaitik, jendea eřeskadetan jartea ez da bidezko, danentzako izango baita bakoitzari dagokion pilatxoa.

Orduak: goizeko bederatzi ta erdietatik ařatsaldeko ordu batetara; ordu ořek bete baño len Lizentautako guztiej emoten dautsegun ezkero, goizago eldutea alpeřik da.

Azken egunetan izendatuak izan, eta azirik artu ez dabenak, gauř bařiro izango dabe eretia: A, B, C, CH, D, izkidun abizenekoak.

Biarkoan, E, F, ta G, izkidun abizenekoak eldu beitez azi-bila.

Burukidea lan eta lan

Bestetan, eguenez, Zaingo ontako burukideaz asteroko izketaldia egin oi dogu izpařkariok, baña atzokoan, ez genduan zori orixe izan, lanpetua bai-zegon.

Batzartxoan

Zaingo ontako arloal buruz, idazkari bereziak, lege-aolkariak eta Zuzendari nagusi Eleizalde jaunak izketaldi bat izan eben.

Abere geixoazko legea

Gaitz itsaskořen aurkako Araudia'k diñona beteaz, Elořio uri-bařutian bulařetiko gexoz jotako abelgořiak badirala jakin-erazten degu.

Ona adirazi beařeko diran zer-nolak:

Gaitzez arkitzen diran ala gaitz-susmoz inguratutako abereak non diran: Elořio'n.

Kutsututakotzat artu beařeko diranak: "Seřari" basetxea, Arantzabal'dař Joseba Mirena'rena, bere korta eta abere janari ta alapideaz.

Gaitz-susmoz bařutia: Beřio auzunea.

Neuři abek artuak izan dira, abereak banakatu, leřokatu eta ikuřaztu. Erabasteko garbitasunik badala ezin aintzakotzat artuko da, aalik gaitzez dauden abere guziak erail bilartean, edo aztařenik somatu gabe amabost egun igaro bitartean.

Ikulu eta ikulu-tresna guziak botikaz garbitzea eta zimauřa eřetzea naitanaiezkoa dira.

Aberesendalarien Burutzak ikustatu gabeko abere beřiz ezin ikuluak ornituko dira. Gaitz-itxaskořen aurka erabakia dagona bete eta bete-erazi beařean dira Agintariak, lanariak eta aberezaintzarekin zer-ikusi duten guziak. Zabar dabiltzanak, dagokien lez zigortuak izango dira.

Bilbao'n, 1937 epala 10'

Idazkari nagusia.

Lagintza

Gařantziko ořa

Langintza Zaingoan, geure uztez gařantzitsua dan ořa auxe eskuratu ziguten:

"Euzkadi'ko Langile - Laguntzako idazkoletakoa Langile-Laguntza Nagusi'ra (Gran Via, 62, beař, 17.980 uřutizkiña) zenbat langile piontzako, igeltzeru, arotz, argin, tornero ta argiztilari dituzten agiria bialtzera beartuta daudela jakin-erazotzen die. Lanean diarduten gintza edo olak itxitzekoak ba-dira, emen sartu al ditugula adieraztearen ematen degu ořr au.

Bilbao'n, 1937'gko. epaila 10'gn.

Langintza'ko Zuzendari Nagusi, Miguel Santines."

Gizarte-Laguntza

Emakuntzak

Lanpetula aurkitu gendun Bustos jauna ta ezin lortu al izan gendun izpařik. Emakuntzok egiu dituenen izen leřokada bakařik eskuratu ziguten.

Uřutia'tař Paul'ek (Ařasate'koa), 28 laurleko; Otxandiano'ko Guda-ornikatako batzuk (Gudarien umezurtzentzat), 582,50; Ruiz'dař Koldobika'k (Bilbao'koa), 25; Salinas'tař P.'k, (Bilba'koa), 25; Fernandez Ines'ek (Bilbao'koa), 5; Diez Simona'k (Bilbao 'koa), 2.

Danetara: 667,50 lauřleko.

Umeak Frantze'ra

Euzko-Gobernu'ko arduradun baten izpařak jaso zituzten Zaingo ontan. Umeak Frantze'ratzeko lanarekikoak dira izpařok.

Izpařak-izpař, Ila onen 16'gnez. aterako dira Bilbao'tik umeak Frantze'rako. Geure ontzi baten joango dira, baiña igalandař gudontzi-taldeko batek zainduta.

Uribitarte'ko nasan izango da umeak ontzira sartzea eta gauzak beař bezela burutzeko, garaiz emango ditugu egokien diran ořak.

Oloron ugarteko "Etxe Zoriontsu." ra joango dira umeok. Oraingo taldea 450 umekoa izango da.

Salerosketa ta Orniketa Zaingo'an

IZPAŘIK EZ

Bi txakuř txaltzat sařtu nai izan zituan nezkatilari, zigoř ederra leporatzekotan ei dira, esan zigun Gomez Beltran'dař Paulin jaunak.

Izpařik ez zuala esan zigun Beltran jaunak.

IDAZKARI BEŘIA

Salerosketa ta orniketa Zaingoko idazkaritzan lagun beři bat degu, Laskibar'tař Gotzon jauna. Geure zorionak zeuri, begiz jo zaituztelako.

Osasun-zaingoa

GAIXOENTZAKO JANARIAREKIKO ARTEZKARITZA

3.101'tik 3.500 zenbakidun arteraiñokoai dagokie gauř artezkaritza ontara etořtzea.

GAIXOENTZAKO ESNEAREKIKO ARTEZKARITZA

14.201'tik 14.500 zenbakidun arteraiñokoai dagokie gaur artezkaritza ontara erdutzea.

Ribbentrop'en ibilerak

Alemania'k orain Inglateřa'n egingo dituzan jardunetan beste bideren bat erabiliko ete dau?

Londres. — Berlin'dik gauř urtengo da Von Ribbentrop Londres'erako ustez. Zain dagoz Londres'en. Ařtuemon astunen batzuk dabez ausago ta Von Ribbentrop Ingelateřa'ko Gobernua'kin bařiren-bařiz asiko da bere arazoak astertzen. Oraiñařte Alemania'k Londres'en egaři asko ez dau ase.

Inglateřařak geien zitaldu ta mindu euzana Ribbentrop'en itzaldia izan zan. Itzaldi zakař ořetan Alemania'k beste biderik idoroten ez ba eban, indařez, izkiluz lortuko ebazala koloniak aitzen emon eban.

Berlin'dik yatořkuzan beste izpař batzuk Alemania'k Ingelateřa'kin beste bide batez ařtuemonetan astea ba daikela diñoe.

Beste izpař batzuk Hitler'ek Alemania'ko Erbeste arazo, Guda-Zaingo'ko, Egazkin arazo-Zaingo'ko ta Diru arazo Arduradunei Inglateřa'ren izkilu geltzeak Alemania'rentzat dakařkezan ondorenen bari emon dagiuela eskatu dautsela diñoe.

Orain munduan dakusguzan goraberak Alemania'ko jauntxoei ta buruzagiei begira ipiñi gaitue.

Zabalkunde-Arduraduna Alemania'n be, zer esan ez dagiala ta eřitařak berotzeko nundik jo ez dakiala geratu ei-da.

Komunisten aurka gartsu ekin eutsen, baiña eřia epeltzen asi da ta España'ko auziak be, ez dauz orain lařegi kezkatzen eřitařak. Ořaitiño Alemania'ko agintariak egiñalak eta leřak egingo dabez España'n paxista lateřia sortzeko.

Beste agiri batzuk ostera, Alemania ta Inglateřa adizkide irautea beařeko Hitler'ek esten dabela diñoskue ta Europa'ko lateřien ařteko alkařtasunari eustea ta "Ez sařtzeko Batzordea"ren erabagiak betetea beařeko dirana Hitler'eri buruan sařtu al ba-leikio, asko lortuko litzakela uste dabe Ingelateřa'n.

Auzi onetan zelan jokatuko daben jakiteko, Alemania'n zeintzuren eritxia geiago dan ikusi beař. Batzuren aburuz Europa Erdialdean eta Sořkaldean Alemania'k beronen aginpidea zabaltzeko aukerarik onena oraintxe dauka ta aukera ori galdu ezkero ezer ezin lortu daike.

Oneitariko oneik Italia'ri laguntza pozik eskatuko leuskioe, Alemania'k beroren amesak lortu dagiazan, lagundu dagion. Ořetarako Alemania'k eta Italia'k Guda-Batza bat sortuko leukie. Guda-Batza ori baiña Alemania'ko gudari-agintariak ez leukie onartuko.

Ořa korapiloa.

SU-ARTEAN

Beřogetabat italiar atxilotu. Ezin egin auřerarik. Generalitař'eko izpařak.

ROJO KORONELA IZKETAN

Madrid. — Auxe dio Rojo koronelak, Guda-Agintaritza Nagusi'ko burukideak:

"Guadalajara'n ondo. Geure gudari-taldeak ugaritzen dijoaz; bateko, artileria besteko tanke, gudari ta abařez geiagotzen beti. Areřioari eutsi ta eutsi dagiote ta atzo gabeko zuloetan bertan egon erazi."

EZIN EGIN AUŘERARIK

Madrid.—Agintaritzak emandako izpařak diotenez, Gobernu-taldeko gudari eřimeak ederki eutsi diote asaldariari ta euren egolekuak ere bai egoki gogortu.

Asaldariak, tramankulu antzo, auřera ta auřera egin nai du ta Aragoi'ko bide txabala zear motozikletan gudariak bialdu ta bialdu dagi. Erkalďařen ametraladorak garbitasun ederik egin dute.

GENERALITAT'EKO GUDA -IZPAŘAK

Barcelona.—Generalitat'eko Guda-Zaingo'ko Arduradunak atzo emandako izpařak diotenez, inguru batzuetan artileri-ots apuřa baiño ez zan izan. Juver saildiko lagun artera bi gudari igaro ei-ziran, izkilu ta guzti.

BEŘOGETABAT ITALIAŘ ATXILOTU

Madrid. — Lengunean Guadalajara-inguruan atxilotutako italiařak beřogetabat dira. Ogetamazaspi italiař gudarostekoak dira.

Atxilotutakoen artean, bi gudalburu, bi teniente ta sarjento batzuk ere ba-dira. Lau egunez etengabeko gudaketan jardun ondoren, ziaro jausita ta gosetuta daude.

Diotenez, Abisinia'ra zeramazkitela - ta atera zituzten Italiatik; baiña, bein itxasontzira sartu zituztenean, itxasontziak Cadiz'erako bidea artu ei-zuan. Italiař gudarosteko bi saildi Cadiz'eratu ei-ziran.

Ametraladoretakoak dira atxilotutako geienak eta paxistařen azkenengo erasoan eriotz geien izan zuan saildikoak. Neka-neka eginda daude danak.

"Eguna"ren 17818 URUTIZKIÑA

Guda Zaingoa

AGINDUAK

Guda Burukideak agindu onetxek emon ditu:

Merezi dualako, Igazko Dagonilaren 17'gařenez eta Lotazilaren 11'garenez Erkal-Jaurlaritzak eman zituan Oro-aginduak diotena beteaz, eta Euzko-Araudiak, bere 10'gn. atalaren bidez opa dizkidan eskubideak erabiliaz, auxe erabakitzen det: Osagařien muetan Artileriko sarjento zan Alfaro Martinez'dař Karmel, Gudaritza bizira ber-sartu bedi, oraingo gudak diraun bitarterako, aitatutako erabakiak dioten lez.

Era berean, geldituen muetan, Zaldizko sarjento zan Dieguez San Millan'dař Albaro, Gudarozte bizira ber-sartu bedi, oraingo gudak diraun bitarterako, aitatutako erabakiak dioten lez.

Era berean, kabo dan Fuente Tapia'tař Zipiren, sarjento malara igo bedi. Igazko Uřilaren lenengo eguna ezkeroz ixan bedi indařean erabaki au. Sařitzeari buruz beřiz, urte bereko Azaroaren lenengotik.

Era berean, geldituen muetan, Elkindarietako sarjento zan Escobosa Gascon'dař Julen, Gudaritza bizira ber-sartu bedi, oraingo gudak diraun bitarterako, aitatutako erabakiak dioten lez.

Era berean, Balanzategi Eraso'tař Gotzon, bein-beingo izkilugile izendatzen det. Lan ortan arituko dan bitartean, Gudarozteko Laguntzaleen Bigařen Saileko izkilugileak irabazten duten añeko lan-saria jazo beza.

Era berean, geldituen muetako sarjento zan Benito de la Calle'tař Bernarta. Ořezko Gudarozte bizira ber-sartu bedi, matxinada diraun bitarterako, aitatutako erabakiak dioten lez.

Zuzentza ta Gogolantzea

AGINDUA

Gudaren eskeak asetze ařen makiñabat Ikastola arturik arkitzen dira. Ikastola oietako gai eta gauzak zaintze dagokio Gogo-lantze Zaingoari. Zaintzea eta irakaskintzari buruz erabili al izateko beti gertu eukitzea. Irakaskintza bere bidean bařena joan dedila lortzea, Burukide onen buru-auste aundienetako bat bait-da.

Ona, auxe dala ta, zer agintzen deten:

Atal bakařa. Oraingo zer-nolak dirala-ta eřekisatuak izan diran Ikastoletako gai eta gauzak artzeko eskubidedun bedi Lenen-malako Irakaskintza Zuzendari Nagusia.

ITALIA'KO ITXAS-LAPUŘETA

Itxas-lapuřeta bat aztertzen diardut jo ta ausi, aztařen batzuk baiño ez dituan itxas-lapuřeta bat aztertzen.

Gudate asieran eta gudate garaian Italia'k lapurtu, jabetu ta saldu dituan Italia'ratu diran Bilbo'ko matrikuladun itxasontziai buruz dasaitzutet.

Auzia lateři arteko lagidiari ikutzen diona da. Ardura ta gařantzi aundikoa da auzia; Italia'k itxasontziok lapurtu ondoren, Franco'ren Gobernua ontzat artu bait'du. Ba-zekian Italia'k itxasontziok erkaldař ikuřiña zeramatena eta italiař kaitara erdu ziranean, España Erkal-Gobernua baiño ez zegona.

Lateři arteko auziak erabakitzeko Bilbo'n gaurdaiñokoan Erkala baiño beste agintaritzarik ez zegona ere ba-zekian Italia'k.

Italia'k, lateři arteko lagidiaren beři jakin eta, itxas-lapuřeta ori zein eskubidez burutu duan, ez dakigu guk. Ez dakigu ta ezin degu asmatu.

Eta lateři bařuko eskubide-lagidiaren beři jakinda, ez dakigu Italia'k nongo bidetu jo duan Bilbo'ko Itxas-Batza'ko ontziak lapuřtzeko.

Zigor Araudiak, gizatasun-izpirik dan munduko baster guztietan gaitezigaři etzi oi dituan bidetik jo ez badu, ez dakigu guk nondik jo duan.

Eři-lanak

AGINDUA

Eraikitze-gintzarako makinak, tresnak eta gaiak lantzen edo eukitzen zituzten guziak, eta lan oietan edo eraikiñetzan igazko Uztailaren 18'gn. egunaren auřetik jardǔten ziran guziak, auxe egin beařean daude: Ezartzera goazenak xeetasunak, amabost uřen baten buruan Eři-lanak Eraikitze Burutzari aurkeztu.

1'go. Aitatu diran gaietatik zer eta zenbat daukaten; eta igazko Uztailaren 18'gařenez zer eta zenbat zeukaten.

2'gn. Len atzeřitik erakartzen ziran gaiak zeintzuk diran. Eta ea gure Eřian gaur egin edo ordezkotu ote ditezken.

Aitatu diran gauza edo gai oietako bat ere ezin besterendu diteke. Eři-Lanak Eraikitze Burutzaren baimenik gabe. Burutza au, Eři-Lanak Zaingoaren etxean dago: eta 15.980'gn. uřutizkiña du. Berořetxek erabakiko ditu sortu ditezken ezpai edo zalantza guziak.



GUDEA DALA-TA

Paxiotařak ekaři ixan daben guda ezeskaři au bide dala, ¡amaikatxu esan-mesa sořtu ixan da baztařetan!

Marxistak deuseztu, uskukuřtzea aldeztu ta gixařtera gentzea ekařteko asmo onez sořtu ei eben paxiotařak guda au.

Paxiotařen iřadotsak ematen dabezan guzuřak dira oneik. Euren agintzetan agertu ixan dabena ta agertuten dabena, baña, beste gauzarik da: dirudunen nagositasuna ta gudalburuben ezpatak aldeztutiařen guda ankeř au gixařteratu ixan dabela.

卐 卐 卐

Eta guda au, paxiotařak bestera esaten ba-dabe, be, ez da bertokua bakařik. Atzeřitařak be guda onetan sařtuta aurkitzen dira-ta. Batez be, Italia ta Doisteřija, España'ko gudalburubak sořtu ixan daben guda onetan, Franco ta onen gudalburu-lagunak baño be bařurako sařtuta aurkitzen ei-dira.

卐 卐 卐

Franco ta lagunak ekaři ixan daben guda onetan ezin geyeguan nastauta aurkitzen dira lateřijak, Italia ta Alemania dirana, ludi gustijak dakijana da. Lateři bi ořein lotsabako esku artzia ta agiriko laguntzea, itsurik-itsubenak be betaureko biařixan barik ikusi leikiena da, ba.

卐 卐 卐

Italia'k, España'ra, milaka gudarijak bidaldu ixan dauz eta bidalduten dauz. Gudarijak eta guda-izkilubak be bai. Eta guda-egazkiñetan be, zenbatu ala ta geyago.

Eta Alemania'k be, Franco ta lagunak ekaři ixan eben matxinada onetan, Italia'k egin ixan dabena egin ixan dau, eta egiten dau: gudarijak-gudari, ta guda-izkilubak-guda-izkilu España'ko asaldarijakanatu.

卐 卐 卐

Atzeřiko eřiketea ondo ezagututen daben jakitunak diñuenez, Italia ta Alemania'k España'ko asaldarijei egiten dautsen laguntzeaz, Europa gustiko paxiotařtasuna gajzkatu gura ei-dabe. Paxiotař lateři bi ořeintzat guda au, asikerea baño ez ei-da, ba.

Euren asmua ta amesak be, uřunera duazanak ei-dira. Paxiotařen amesik zoragařijenak Europa-ziař begiratubaz egiten dabezenak ei-dira.

Eta gau ta eguneko ames zoragařijok egiztuta ikusteko, euren lenengo gurendea Franco ta lagunak bide España'n sořtu ixan eben matxinadan lořtu gura ei-leukie.

卐 卐 卐

Europa'ko aberatsak aberatsenak be paxiotařai lagunduten ei-dautse. Diruba ta joputzaliaren zigořa, anayak ei-dira, ba. Eta eřijak jopututeko zigořari, txindijak lagunduten ei-dautse.

卐 卐 卐

Gudalburuben, txindi ta joputzalien gurendeak, baña, kaltiak-kalte ekaři-ko ei-leukez. Guda onen amayak, beste guda aundijago bat ekařiko ei leuke. Eta berein lateřitan lateřitařak bata-bestiaz egingo leukezan buřukeak, eten bako odol ixuritzeak ixango ei-litzakez.

卐 卐 卐

Ikusten danentz, ba, lateřijen gentzeařen baño ez ba-da be, paxiotařak ekaři ixan eben guda au eři-aldezijak irabazi biař dabe.

Zuzutsak eta gentza-egaři dan gixabatzak eskatuten dabena be auxe dala esan leike. Gurenda au lořtuteko baña, benetako eři-aldezie agertu biař-ko gara. Baña benetako eři-aldezie eta ez eřij'n eskubidien ganetik eřiketa ziztriña agirijan imiñita. Ori ez

GUDALDIKO JAZOKUNAK

Paxiotařak oraintsu Gipuzkoa'tik bidaldu ixan dabezan ařtian Bizkai'ra etoři ixan dan emakume zintzo batek esan ixan dabela ta guri esan dauskuben jazokun bat edestuko dautzugu, irakuřle.

"Beata" ořetako "margarita" bat, Ezkioga'ko Miren Neskutza'ri gudalburubentzat gurendea eskatuten edo, egunero Ezkioga'ratuten ei-zan.

Egun baten, baña, bere gurenda-eskarijetan sutsuben iñarduban aldijan —¡alako alatzik!—Ezkioga'ko Miren Neskutza'ren irudi dizdiratsuba, euzko-ikuřin edeřez apainduriko bakaulki aldintsuban jezařita ikusi ei-eban. Eta Miren Neskutza'ren apaingařitzat agertu ixan zan euzko-ikuřin edeř ařek begijak lausotuta jařì eutsazalako-ta, paxiotařentzat gurendea eskatuten Ezkioga'ratu ixan zan "Margarita beatea", zorabijatuta lufera jausi ei-zan.

Bere laguntxubakanatu ixan zanian berak ikusi ixan ebana arigařijetan be ařigařija ixan zala ta, jazo ixan yakan jazokuna iñori esan gura ez da mutututa geratu ixan bai litzan ixildu ei-zan.

Azkenian be, baña, batak ba zirikatu ta bestiak be zirakatu, jazokuna gustija edestu ixan ei-eutsen. Eta entzun ixan eben gustijak lařituta zer erantzun ezekijela geratu ei-ziran.

¿Egija ete...? ¿Alatza...?

GUDA-IDAZKI-IRIKIA

Loyola'tik Amayur'era

"Igeřa" abeřkide miñari aguř. Onuzkero esango uken ire baitan idaztea aztu ote zaiten. Ez eřkide lagun ori. Gernika'n atsedentzen egon gaituk eta aldi ořetan nagikeriak jota egon nauk. Orain ostera mendira igo geranean idazkortz erdoituta koari autsa kendu nairik idazten asten nauk. Ez diat ordea gauř gure beřirik emango. Ori biyar edo etzi egingo diat.

"Amayur" Asturias'era jun zanean bere beři izparingi onetan uste nian. Iruditzen zaidanez ordea ire biotz abeřtzaleak joera ori etzian begi onez ikusten. Eta ořetxek suminduta izpařik biali ez dekala ere iruditzen zitak. Izan ere tamalgařia dek zuei gertatua. Gipuzkoařak izan geienak, Gipuzkoa ařotzen eta euzkotař endakatuen menpe egon eta beste lufalde bat zuen odolaz bustintzera eraman. Ta alare geurekoyak gerala ziotek. Etzeok eskubiderik. Ez diat jařaitu nai arazo onetzaz. Bestela egi gařatzen batzuk jaulki bai nezazkek. Eta ořela egiteko aldietan ez nagola iruditzen zaitelako. Onekin uleřtuko dek noski zer esan nai diaten.

"Amayur"koak Euzkadi'ren ikuřiña goian jai dezutela ba zekiagu. Bein ere ezkero kikilduta geratuko etziñatela ba genekian. Zuen egintzak pozik ikusi dizkiagu. "Luř-Gořì" ta "Eguzki"ren idazkiak atsegiñez irakuři. Samintasun eta atsekabezko izpařak ere jaso dizkiagu ordea. Ainbat ziñopa jausi dek. Euzko odol gořiak Asturias'ko lufak busti ditxik. Abeřtzale anaiak erail dizkitek. Garate, Zubizarreta, Izagiře azkoitiařak. Alkorta ta abar geiago ez jaikitzeko erori dituk. Atsekaberik atsekabiena Saseta buruzagiaren eriotza izan dek ordea. Euzkadi'tik irtetzerakoan zer esan zun ba zekigu. "Guziok ez gaituk itzuliko", esan zian. Ta ořela gertatu dek. Irakuřleok otoi bat egin zazute Asturias'en ildako euzkotařen aldez.

Laisteř onera etořiko zeratela uste dugu. Irikitzen zaudetela ba zekigu. Ta lenbailen osorik zaudetenok etoři. Beso zabalik ařtuko bai zaituztegu.

Gauřkoz aski diat. Gure beři gorago esan diaten bezela emango. Biyar edo etzi arte beraz, Jel'pean aguřtzen au ire lagun onek,

OTARMI

GUDA-IDAZKI-IRIKIA

Loyola saildia Otxandiano-Ubidea aldean - "Igeřa" aberkide miñari

Azken idazkian agindu niana beteaz gure saildiaren beřiak domazkiat.

Idazki iriki auek iri zuzendu ařen azpeitiař-gipuzkoař guzientzat egiñak dirala esaten nian egin nun lenengoan. Ořela i ta beste eřitař euzkel-idazleak esnatu erazi dizkiat. "Garamendi" ta "Z.'tař P."-re bizi dirala adierazi didate. Eta pozik nauk euzkel idazleak geituaz eřitařen beři asko era onetara jakiten degulako.

Gernika'n atseden luze bat egin ondoren ostegunean alde onetara etoři genituan. Oraingo etořeran azkar eldu benituan. Lengoan ba'dakik Sukařieta'tik Zornotza'ra ibiltzen dan "isabelitan" zenbat ordu egin giñuzen ba dakik. Ostegunean ordea bi rebil azkařetan etořita bi ordu baño zerbait geiyago bidean eginda goiz iritxi genituan gure lekura "Itxarkundia" egon zan leku berera berak uste baño lenago eldu ere. Auřetik ez izenik. Ganera komeni ere ez.

卐 卐 卐

Urkiola aldea elufez inguruta zeuken etořitakoan. Mendi onetan lapraa ta besterik ez alare. Lola, basea bi launetarañokoa. "Talo" ederak egiteko morukoa. Egualdiak oneratzen asi dirala zirudik. Eguzkia beintzat bere diztada ederak zabaltzen ditxik. Udabeřia ba zetořek eta itxurak azaldu bear. Otz gutxi egiten dik. Argitzen asi daneko egazkiñak agiri ere bai. Txokolaterik ez ordea jaurti. Etoři giñan ta uřengo egunean fatxistak artileriakin Padura gure eskuira dagonaren lekura suaga (bomba) ak'ua jaurti zizkiaten. Beřiak giñala ustekoziaten etsaiak noski ta bildurtu egin nai. Etxiaten ezer lortu. Beti bezela lortu gabe asko geratu bai uan. Lertutako guziak beřiz Padura'ko bat zauri uts batekin zauritu. Naiko diat gaurko. Luze ez diat egin nai. Aspertu ez adin.

Beraz besterik ez. Jel'pean uřen arte.

OTARMI

Españar gudako izpařak-eta

Guadalajara aldean paxistak eroen auŕerakadea bertan bera geratu da

Olandařak be euren itxasontziak zaintzen.-Alemania'n katolikoen gořotoz.-Gijon'dik kañoi-dunbadots andiak entzuten ziran atzo.-Beste izpařak.

ALEMANIA'N KATOLIKOEN GOŘOTOZ

Hamburgo.—Dusseldorf abadea espetxe sartu dabe alemandař ertzaiñak.

OLANDAŘAK BE, EUREN ITXASONTZIAK ZAINTZEN

Amsterdam.—Asaldariak olandař itxasontzi bat be, eurendu dabe ta Olanda'ko Gobernua'k España'ko itxasoetara gudontzi bat bialdu dau, olandař itxasontziei laguntdu dagioen eta zaindu dagizan.

AUŘERAKADAK AMAITU DIRA

Madrid. — Guadalajara'n paxistok asi eben auŕerakadeoi amaitu ei-da ta paxistok egin ebezan bitařteak bete e'-dabez eři aldezleak. Belbil eta burdiz ondo ornidutako gudari-taldeak izan ei dira alde ořetan jo dabenak.

Amaikatxu eratzi ei dabez eři aldezleen suizkilubizkořak.

ASTURIAS'KO GUDA-IZPAŘAK

Gijon.—Gijon'dik kañoi-dunbadots aundiak entzuten ziran atzo goizean. Otsok uřundik etozan.

Ořu ořeik eři aldezleenak ala asaldarienak ziran ezin atara eiken baiña. Eguerdi-inguruan dunbadotsok miestu ziran.

Areriuak euren gudari guztiekin iru edo lau lekutatik erasoka asi ziran.

Escamplero Ipařaldean amabost kilometro ingurura eři aldezleak dauken Biedes guda tokiari erasoka ekin eutsen. Baita Pando, San Claudio ta La Verruga'ko eři-aldezleen guda tokien aurka, be, ekin eutsen.

Joaldia zakaretan, be, zakařa ta bizia izan zan; areriuak baiña ezer ez eben lortu ta atzera egin beařa izan eben.

Eři aldezleak paxisten erasoaren zain egon ziran eta ureratzen itxi eutsen baiña azkenez ekin eutsen eta lasteř alde eben bertan garbitu ez ziranak.

Egunooko bizien eta adoretsuen agertu ziran asaldariok baiña komentsu ta artegatzeka egon ziran eři-aldezleak eta emon aiakoak emon eutsezan.

Erasoak bein baiño geiagotan asi ebezan baiña danak alpeřiko izan yakoezan, amaika gudari garbitu eutsezan eři-aldezleak!

Iru ordu baiño geiago iraun eben joaldiok; azkenez gizonak alpeřik galtzea zala ta, euren lekuetara biurtu ziran.

Ařatsaldez eři aldezleen egazkiñak paxisten Escamplero'ko, Grado'ko, Santullano'ko ta Loriana'ko guda-tokiak eta gudar-taldeak suagatu ebezan.

Leon'go egazkin - tokietatik Asturias'erantz paxi... egazkiñak etozana jakin ebenean, atara ziran eřkaldařen egazkoak eta egazkiñon bila asi ziran, eurakin buřukaldi bat egin naiean; paxistenak ez ziran agiri baiña ta eřkaldařenak euron tokietara biurtu ziran.

ARAGON'GO GUDA-IZPAŘAK

Barbastro.—Ebro Egoaldean eta Alkubieře mendietan pusilakin jardun eben.

Paxista-taldeak eři aldezleen guda-iuban onduetaragiño eldu ei-ziran baiña anka jořan eta al-ebanak al eban moduan iges egin beař izan eben. Edozeinbat zauritu ta il izan eben.

Monte Osacro aldean paxista-talde batek Perdiguera'tik auřera egin nai izan eban. Erkaldařen suagalariak ekin eutsen eta bitxabalean egiten ekin eutsen lanak laga beařa izan eben paxistok.

Suagalariok begi-zoliz jokatu eben eta alde artako Gudari Agintariak zorionak emon eutsezan suagalarioi.

Carlos Marx gudari-taldeen guda-oiñetatik datozan bařiak, paxistak gudari ořeik egozan guda-tokiak suagatzen ekin eutsela ta erkaldař suagalariak paxistei kañoi bat kendu eragin eutsela diñoe.

Perdiguera aldean paxistaz beteta uan belbil bat; paxistok guda-lanen batzuk egiten uazan ausago. Erkaldař kañoiak ekin eutsenean al paxistok belbiletik iges egin eben eři-aldezleak beste toki batera tiroka ekin eutsenean atzera belbilean sartu ziran ta eřiruntz asi ziran. Ekin eutsen erkaldař suagalariak euren aurka ta belbila laga ta iges egin eben.

"Eguna"ri biotzez

EGUNA euzkel-izpařingi argiari biotzez zorion-aguřik esketsu ta beroena emoteko izan bedi nire gaurko idazlan koxkořau. Nire itzen ots meiela ukondoraño be e'duko ez dan ařen, buru-bařuak damostan argi izpiz leřo batzuk idazten natorkizu.

EGUNA izan beař genduke izparingietatik maiteen. Euzkera utsezko eguneroko b a k a ř txalogařia dogulako. Euzkeltzalien zorion iturririk onen eta gure izkuntz maitearen babes eta jagolerik zintzoena dalako.

Arestian oindiño eginkoitz esten genduan ames eztitsu gogokoa, egi ma'dul eta agiri biurtuta dakusgu orain. Noz eta orain! Euzkadi eta euzko ... guztien areriorik amořatu... buruba ta gusti iruntsiteko indařik lařienak dagizanian! Abeři orok alde-zalde, lapiko bat iduri, euzko eta biotzen odolez pil-pil gañezka dagienian, Euzko-gudarien irintzi zorotzak, mendi eta zelaiak zearkatuz, gořoto azkatasun uferatzia adierazi dauskunian!

Urte gogoangaři onek gauza ixařik ... onik be ekaři dausku guk ikusi dogunaren ikusmiñez amaika euzkeldun bizi izan ziran, etzuen iritxi, baña. Bařijen bafi egotziko ba'leuz luř ... Alaitasun eta pozen zirikadak biotza ... zorian ipiniko leuskiek ez alderitxazue?

Ez uste, baña, gure izpařingi aundi ori galatik goixerako lora edo odořetik arako sagař muxu gořia dozunik. Urte azkoz bururatuko lan eta jardunak doguz aren sorle. Euzkeltzale guztioen izerdiz ereikitako onaři ganean datza tinko. Ekaitzaldi noiz eurik noiz ... indartsuak erasan aol izateko ... erotuta dagolakoa daukot. Putz egin eta beste barik ezereztutekoa izan ba'litz, zaspi ořez lurperatuta genduan onezkero. Oiñazpiko tinko eta sendoan datzala esan beař, beraz, arerio puřukatuen erasoak gora bera igige ta iraukoř dakusgu ta.

Ezta, laña au naiko. Ori zirudi bat be azpikoz aurkako dozun ařen, geřitik bultz-erasoka ba'goakioz, beinguan dozu lurera. Eta eztozuz makalagoak geřiarekiko erasook. Burutik, geřitik eta alde guztietatik etenge atzamarka ... erpe zitaletarik aldendu biař dogu loretatik edeřa eta bitxietatik maiten dogun EGUNA be. Arpegi emon, aren bizitzari buruzko gořotoz biotza kiskaltzen dauken oroi. Zitzok jango dau, bestelan, zugaitz sendo adartsuta igalitsuori.

Ořetarako, baño, euzkeldun guzti-guztiok egin beař alegin. Orok izan gaitezan lankide eta nekekide aren bizitza aldez. Bakoitzak bere arloan ta aal dauanez jokatu. Ez lekigu iñor nagi egon. Orixe dozu gorantziduna. Zelan edo alan baiña ekin lanari. Aldan'k ed'r, txukun eta idazlan sakonez argitaratzen irarkari eta idazleak. Erosi eta aldanik gelen euren adizkide eta auzokideetan zabalduz, bařiz, erosle ta irakurleak. Onela idazle ta irakurle, orok izango gozuz EGUNA'ren laukide ta aren bizitzaren eusgaři. Lotu zakioz, ba, lanari eta ekin azpertzeke. ¡Gora EGUNA!

ITUŘIGORI.

Kirikiñoa eta txakuřa

(ALEGITXOA)

Txakur mizketu batek
Baso zabalean,
Kirikiño zabařa
Aurkitu ebẽban.

Priztiaren mamiña
Gozoa izan nunbait,
Ta, mustuřa luzatuz,
Ortzak ezaři nai.

Txakur gizarajoak
Laster susmau eban
Arantzen laztasuna
Uyen bitartetan.

... ...

Ořa mizkeriaren
Ondoren ankařa.

AŘUGAIN.



Troniza eta sayua. Ta ebagita dauken tronizua urdai ... ba...

TARTEKA-MARTEKA

Inditařak azkatasun billa

Kontrola...laba ostean.-Mussolini Italia'ren indařak erakusten.-Ingeles gudarostearen sayoak.-Brasil eta Italia.

BRASIL ETA ITALIA

Roma.—Rio Janeiro'n egun oneitan egiune geigaři bat izenpetu dabe Banco de Brasil eta Aldaketa-Etxe italiařak, eři bi onein arteko joan-etořien arauak erabagiaz.

MUSSOLINI ITALIA'REN INDAŘAK ERAKUSTEN

Paris.—Mussolini Africa'ra joan dala eta Libia'n izango diran goraberak gogoangařiak izango dirala egitan ere, diño "Le Temps" egunkariak.

Mediterraneo'n Italia'k daukan indař eta aginpidea ařo ařo agertuteko izango e'-dira ango zalaparta eta erakusketak.

KONTROLA... LABA OSTEAN

Londres. — Ingeles izpařingiak azaldu dabenez, kontrola ezartea atzeratu egin ei-dabe estaduen ordezkariak.

Hitler'en eskabide bařiak Von Ribbentrop'ek ekařiko ditu, Locarno eta koloni auziazkoak.

TURISMO ALDEZKO EGIUNEA

Roma. — Alemania'ren ordezkariak eta Ciano kondeak, aleman turismo ibilpide aldezko egiune bat lotu dabe.

Italia'ren lufalde eta kolonietako ibilkerazkoa da itunben ori.

SALEROSKETA ITUNBENA

Roma.—Ciano italiař ministruak eta Hungria'tař emengo ordezkariak salerosketa itunbena bařiztau dabe.

Itunben ori, 1928'gnko. garagařilaren 4'gnz. egindakoa zan, eta orain italiřen koloniazko artuemonak be, baruan artzen ditu.

INDIATAŘAK AZKATASUN BILA

Londres. — India'tik diñoenez, Ipar-sartaldeko indiař abenda batzuk euren artean bananduten asi ei dira eta eřepublika banatu bat ezaři nai dabela edo, azaldu daroe izpařkariak.

INGELES GUDAROSTEAREN SAYOAK

Londres.—Udabařian asiko ditu ingeles gudarosteak urteroko sayoak, eta 60.000 gizonek esku artuko dabe oraingoetan.

Tanke eta belbil taldeak jardungo dabe, eta jardun ořek zer ikusi andirik izango dabe, eta aituen artean zaletasun bizia dabe sayo ořen ondorenak jakiteko. Eztabaida eta iritzi-mintzi ugari sortuko dabela uste dabe agindariak.

Londres uritik uřean izango dira sayaketa ořeik, eta 30.000 mila lur laukitu bařuan, kondadu batzuetan.

Euzkel zaletasunari buruz

Goizian, goiz xamar da. Egualdi txařa benetan. Eřuki dituk gauř ere goi mendietan arkitzen dien ain gudari jatoř, be ñere naiko ordainduko ez diranak. nion oldozten nere kolkorako.

Dan... dan. Ate otza.

—¡Auřera!

Sařtzen da mutil koxkoř bat. Egunerokoa. Arpegian margotuta dakařski guda ankeř, xitel onen bezuzak (eřegaluak). Emendik uřutikoa baida, gu bezela, au ere. Zestuara

—...gunon, Jainkoak deizuela—diyo.

—Baita euri ere ta... ¿ze beři dakařek?

—Betikua nik. EGUNA gutxi saltzen detala—botatzen dit.

—Ba, beti galdera bat—diot. Ikusirikan iñolaze neuk jartzen diotan arpegi azaria, naiz da ez berari, baizik entzundakoak eman diten biotz ondokuari, jařaitzen dit:

—Alpeřik dek, alpeřik; naiago ditek askok beste edozein izpařingi ařtu EGUNA baño. Au bai dala tamala euzkeldun gu dasail baterako.

卐 卐 卐

Gařatza da baña egi biribila. Guda bildufgařia daukagu emen euzkeltzaleok. Abeřtzaletasuna bai, ta euzkera gutxi. Aoz ontan ere geiago, egitez baño.

Egia du mutil koxkoř izpařingi saltzaile arek. Alpeřik dek alpeřik. Abeřtzale asko ikusten dituk egun autan, miñgañez, baña beren eginjoerai begiratzen badiok, ¡a zein gutxi! Askok uste du abeřia luř zatitxo bat dala, ¡eřu aundia!, ta, ezin siñistuko dabe abeřiarenak diranik: izkuntza, oiturak, siñismena ta abar.

卐 卐 卐

Askotan entzungo dezute, oř zear uru tira jun beařik izan gabe, uztez gizon azaltzen diranari, ořelako zentzunbako esanak: "Soy tan patriota que el que más. Nadie me aventajará en patriotismo. He hecho esto, lo otro"... ta ez du amaierik arek egin dituenak, abeřiagaitik. Gudan ibilia dozu ¡edonun!, beltzak eta reketiak dozenaka garbitutakoa. Baita... aize emon erkero, falangetařai ortzak ezařia. Erua dirudi bera aupatzeko, darabilzkin ...paola leor da lerduak, entzurik.

Jařaitu ořelakoari bere eginbidietan ta erabakiko dezute zenbateraño itxaron leiken oien zentzunetik. Euzkalduna izan ařen ez dio iritxiko erderaz baño egitia ta utza bera egoki erabilten baleki. Oiturak ezin atzeřikoarik. Ta nola ez, nasaia siñismenetan.

卐 卐 卐

Dana da euzkelzaletasuna aldendu degulako. Euzkerari eřeztasunak uko izan zairkiolako. Orain degu sasoia, zur ta zořotz jokatzeko.

卐 卐 卐

Sagastian, zugaitz sagař gazte bat aldatuta arkitzen dan lez, "Eřtzaña" guda-sala daukagu onetarako bereziki Euzkadi'n. Luřa nola komeni ala aukeratuta dauka; landara, erne ta gogořki goruntz, bere adařak atera dedin. Bertan, bai ainbat ta nai bezelako txertaketak egin litezke. Onek ez du zugaitz zařak euki leiken aitzekik. Era guztietara ipiñi liteke oraindik. Gañera untzak ere jaubetutzeko aztirik ez du izan oindiño.

Euzkeldundu dezaigun. Euzkeraz, eař, agindu, jagote ta aldan dena. Sasoian gaude. ¿Zailzamařa dala? ¡Bai zea! Lenbiziko egunetan pixka bat. Ta egunero EGUNA irakuři ezkero, erderaz bezin eřez aste bete bařun, jařiko giñake danok, bai idatzitzen, bai irakuřtzen ta zer esanikez ulertzen.

MADRID'EN

Goizaldean asi ta eguerdiko ordu biak arte eřepublikařen suagalariak aspertu barik ekin eutsen

Madrid. — Guadalajara Ipařaldean atzo goizaldean geroago ta sutsuago joten eben paxistok.

Eři-aldezleak kementsu jokatu dabe. Paxistak eurak, be, adieraso dabez eři-aldezleen kemen eta indařoi. Arañegun gaŭaz Radio Salamanca'k auxe esan eban: "Gořiak abertzaleen erasoei gogotsu eusten dautse, egundoko gogořen doguz; ořen besteko eragozpenik jaři eikenik ez genduan uste".

Paxistok egin nai eben bitarterik ez dabe egiterik lortu.

Inguru ořeitan paxistak guda - tresnak ondo ornidutak ta egundoko indartsuen jo dabenaren, erkaldařak eutsi egin dautse; batzuetan gaiñera paxistei "tope" eragin dautsen, eři-aldezleok eu ok ekin dautse iotzen eta atzera eragin. Ořa zeiñen bularrez diran erkaldař gudariak.

Eři-aldezleok italiař guda talde bat esku artu dabe: eta ořein artean komandante bat eta beste gudari agintari batzuk doguz.

Goizaldean asi ta eguardi-osteko ordubiak arte erkaldaren suagalariak paxistataldeak suagatu ebezan eta bai banandube. Aurre-auřean egozan paxistei laguntzea eragotzi eutsen atse-aldean egozan paxistei.

Beste guda - jokera ta arutz-onutz batzun bidez paxisten tanke ta guda burdiei ezer egiten ez eutsen laketu eři-aldezleak, eta artietan kañoiekin euren guda-toki ta guda lubanak astintzen ebezan.

Egundoko erasoak asi ebezan paxistok, baiña auřera egiterik ez eben lortu ta euren lekuetara biurtu beařa izan eben.

Atzo goizaldeko ekiñaldietan gudari-galtze aundiak izan ebezan paxistok.

Joaldi ořeitan kementsu jokatu dabe erbestetař ta eřitařez osotutako gudaloro bik, batez, be.

Eguardian ekin eutsen ostera, be, paxistok baina eři aldezleak dabezan guda-tokiak orain artuko dauzanik ez dago. Mendean dagoz asaldarion guda tokiak orain eři-aldezleak dabezan tokietatik.

Ciudad Universitaria'n izan ezin, beste guda oiñetan ez da jakingaři dan ezer jazo.

Ciudad Universitaria'n zuř jokatu dabe eři aldezleak Escuela de Arquitectura izeneko etxea jaurti dabe ondo-ondotik. Miña bat ipiñi eben etxe ořen ondoan eta miñeořek leř- dabenean, azpikuz-gora juan da etxeoi ta etxe ořetan egozan 140 paxista etxearen ařian artean garbitu dira.

Beste asko, be, zauritu yakoez ta ogei suizkilubizkoř ta mortero, be, galdu yakoez.

Orain erkaldařak paxisten gorpuak eta guda-izkiluak etxe apurtu ořetatik ataraten diñardue.

Etxe apurtu ořen osteko ormetatik ba diñardue dunbadoska paxista batzuk.

Jarama guda-oiñetan suizkilubizkořen eta pusilen dunbada banakak entzuten ziran.

Pingařon mendiaren eskumaldean, sakonik-sakon auřera egitea nai izan dabe paxistak, baiña eři-aldezleak zain egozan eta atzera eragin eutsen.

Guda-oin sail onetan Puig gudaloroak jokatu dau jator. Paxisten joaldiei eutsi toki batzuetan eta beste batzuetan atzera eragin dautse ta guda toki bařiak lortu dauz.

Pardo inguruetan paxista-talde batzuk ikusi dabez aruntz-onuntz eři - aldezleak eta kañoiekin suagaka ekin dautsenean uxatu dabez ta iges dabe.

EGUNA
JEL

Zeure aberi - elia maite ezpa-dozu, zeure aberia bez, eztozu maite.

Lgo. urtia || 61'gn. zenbakija || Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. || Bilbao'n 1937'gn. epalla 2'gna. barikua || 15 eunen

AZKENENGO IZPARRAK

Mańuekos gudariz eta armaz gogortu dau Frantze'k

Italiarrak eztira Mussolini'k uste ditun lako zintzoak.-Berrogetamar milloe lirako kontrabandoa agertu da.-Arkitetuen ikastolea lurrera bota eta 140 paxista azpian artu Madrid'en.

IŃONDIK IŃORA EZIN LORTU

Madrid.—Arerijuak Madrid'eko luńaldian gauŕ-arte ixan ďaben gudaketarik gogoŕena lau egunotan daruena da. Gudaketa gogoŕ onek Guadalajara'ko guda-ońetan dau leku.

Eŕizalien indaŕak edeŕto eutziten dautse arerijuari. Onek Zaragoza'ko bitxabal ertzan artu nai dute mundu guztitik.

Baña eŕizalien indaŕak ondo dakiye gudia adorez jokatutiagaz bakaŕik irabazten dana. Arerijuak euren gudaketa gustijak deuseztuta lotu diranez Madrid uri auŕcko guda-oñetan, Guadalajara'ra jo dabe.

Guadalajara Madrid'etik 100 aneurkin ez uŕunduta dago. Beraz ezin dabe ezta asmotan be, Madrid'iñondik ingurukatuzerik lortu. Oŕetarako bost aldiz gogoŕagi jokatu bearko dabe.

Uzte bada be Guadalajara'ko guda-oñetara gudaroste gustijak eruan da beste guda-oñetatik jotia, euran uztiak oso txarto urtengo dautse. Guadalajara'ko eŕizalien egoleku gustijak indaŕtuta dagoz, atsedenduten egon diran gudari gordiñakaz. Eta beste erdi aldeko guda-oñak be, biaŕ dan lez dagoz sendotuta. Zaintzaliak zur dira, eta gudarijen kemena geruago ta eŕimiago.

AŔANTZA EDEŔA!

Madrid.—Ruiz Lorente'taŕ Andoni Mirena'ren etxian azterketa bat eginda. Eta azterketa oŕetan izkilu bat eta berunbil kutxa bi aurkitu ditube. Baita ainbat eskuma aldezko agiri.

Uŕunetiko ikuski edeŕ bi, suizkiluazkaŕ bat, ezkuzko bonbak, eta gaŕantzi aundiko ingijak.

LANERAKO ASMOTAN?

Valencia.—Collante'taŕ Ander ixeneko guda-izpaŕkari batek atxilotutako moru bateri galdera batzuk egin dautsoz. Fez erdikua, Mańueko'etako uri nagusikua zala erantzun eban moruak. Frantze'ren menpeko Mańueko'etan lana eskeiñi ei-eutson españaŕ ordezkari batek eta beste bere lagunari España'ko Mańueko'etan. Berak ezeukala lanik eta eguneko 50 laurteko opaldu eutsan-aŕen, pozik jaso ebala oparia. Bein España'ko Mańueko'etara eldu zanian nai ta naiez eruan ei-eben gudarostietara. Eta berialaxe España'ratu ta berton prisioneru artu eban.

KONTRABANDUAN

Roma.—Ertzañak egin daben azteŕaldi baten kontrabandoan ebilan talde bat atrapau dau. Orañarte kontrabando bidez kanpora bialdu dan dirutzea beŕogetamaŕ miloe lirara igoten dala esan dabe.



Euzkadi'ko txadońak. Iruña'ko katedrala.

AZKENAK EGIN NAI OTE?

Madrid. — Gauŕ eguerdian Guda-Zaingoa'k emondako izpaŕak diñuenez, arerijuaren oldarketia, Guadalajara'ko ipaŕ aldian, gogoŕa ixan zan. Gaba jausi zanian, eŕizaliak oldarketa bat egin eutsen eta oldarketa onek gaŕantzi aundija ixan eban. Ganera ainbat prisioneru egin jakezan. Onek ďanak italiaŕak dira ta euron artian agintari batzuk gaiñera. Egolekuak ziaro obatu ditubez.

Gudaketa auxe eta Guadaŕaman ixan dan suagadatzia kendu ezkero, ezta ixan beste izpaŕ aipagaŕirik.

EGUN BAKETSUA

Andujar.—Pozoblanco inguruan baketsu igaro da egun guztia. Villanueva del Duque'n arerioak daukezan luŕaldeak edeŕto suagatu ditue gure egazkiñak. Arerioei ainbeste baja egin yake.

Arerio oŕek laguntza baŕiak eskatu ditu, txarto eta estu dagolako.

MAŔUEKOS GOGOŔTZEN

Berlin.—D. N. B. izpaŕ etxeak diñonez Frantze'k Mańuekos'en bere mende daukozan luŕak indaŕtu ta gogoŕtzia erabagi dau.

OŔEIK PAXISTOK...!

Marsella.—"Yebel" izeneko ontziaren kapitanak esan dabenetik, atzo Ajaccio'ra joyala paxisten egazkin batek bonbak jaurtiten ekin eutson. Itxasontziaren baŕuan ekaŕi dabe bonba bat. Bonba ori lematokira jausi zan eta ezeban leŕik egin

Portura eldu diranean agintarien eskuetan laga dabe eta oneik jakinsuei emon dautse, zelakua dan erabagi dagien.

Gauŕ Marsella'ra juateko frantzetaŕ guda-ontzi batek lagundu biaŕ izan dautso, bestela egazkiñak suagatuko ebelako.

ALVAREZ DEL VAYO LANEAN

Paris.—Izpaŕingi guztiak eta radioak zabal-zabal erabili dabe Alvarez del Vayo'k egin daben agiria. Agiri oŕetan italiaŕak españaŕ gudan dauken partea agertzen dau politikoen artean eta uste da europaŕ eŕi askori ziŕitxu edeŕa egingo dautsela.

MADRID'EN

Madrid.—Gauŕ izan dan gauzarik aitatugaŕiena eŕepublikaŕak egin daben joaldia izan da. Ciudad Universitaria'ko arkitetuen ikastolea luŕera bota da eta eun eta beŕogei paxista bere azpian artu ditu.

Beste aipagaŕirik ezta egon Madrid inguruetan.

Bilbao'ko Euzko Gastedija

Alberdi eta Oldargi guda-taldeak

Guda talde onetan senitartekua dituzenei adierazoten yakoe, bijar goxeko amabietarako artuko dirala Gastedi onetan gudarientzako bialkunak.

Txiŕistadak

Nik ori?
Arek au.
Nik au?
Arek ori.
Eta beti bardin.

Bitartean laba-ostekuak (azkatasun zaliak ez gero!) paŕa-paŕa lanean.

卐 卐 卐

Tabernan: Nun dabil?
Kafean: Nora juan da?
Etxean: Bizi da?
Kalean: Zer egiten dau?
Nor edo nork?

Baketan laga egiozue, bera ezta zuekin sartuko-ta!

Ez orixe!

卐 卐 卐

"Ez sartzeko batzordea" gora, "ez sartzeko batzordea", bera.

Zer uste dabe, baña, oŕek erbestetaŕok?

Papauak lez edo koitauak lez atzipetuko (engañauko) gaituela?

"Ez sartzeko batzordea" obeto dogu emen.

卐 卐 卐

Aŕitzen zaitue?

Orain euzkeraz asi da.

Zegaitik dala uste dozue, ba, "La Lucha de Cla..."?

卐 卐 卐

Ni osasun zaingoko arduradun ba' nitz...

Izpaŕingilari guztiak aizeak artzen eroango neukez.

Premiñarik eztagola?

Batzuei egun baten idazten dabena uŕengorako aztuten yakoe-ta!

卐 卐 卐

Eŕi-Zaintza'ko arduradun jaunari serijo-serijo salatuten dautsagu.

Azkatasun-zalien boskaŕen saildia bilatu ta salatu ebenak tarteko dira.

Zirtadak artu eta burua makurtu dabenean arpegian igaŕi yake.

Zer egingo da eurekaz?

GUDARAKO

Amar mila miloe

Paris.—Aldundia'n izan dan eztabaida baten Gobernuek bere alde izan dauz autaŕkirik geienak. Dan-danak ez dauz izan baiña bere, alde.

Autarkiok emon beaŕ ziranean 70 aldun Aldundi'tik atara egin ziran eta bik auŕka emon eben euren botoa; 460 aldunak diru-eralgiteok onaŕtu egin ebezan eta Aldundi Nagusia'n senadoreak danak onaŕtuko dabela uste dabe.

"Mar Cantabrico" ontzia dala-ta

Paxistak itxasontzi oŕen asmo ta ibillera guztien jakitun ziran.-Nor izan zan, New York'en, Franco'ren ordezkari baten etxera, zoŕotxo bat eroan eta iñori itzik esan barik aldendu zana?-Ekaŕezan armak txaŕak ete ziran?

Nueva York.—Ondo jakin daikenak esan dabenez Bizkai'ko Itxaskolkoa'n paxistak eurendu daben erkaldaŕen "Mar Cantabrico" itxasontzi ondo, be, ondo zaindu dabe paxistok.

Nueva York'etik atara ta Veracruz'ko porturantz egin eban eta ortik España'runtz bidea aŕtu eban. Iruntz-onuntz guztion baŕi jakin dabe paxistak.

Lateŕ-Batuetako Aldundian España'ko auzian ez sartzeko onaŕtu eban legeak urteera eragotzi ez egion, legeoi onaŕtu baiño apuŕbat auŕerago atara zan ango portutik. Urtaŕilaren seigaŕena zan egun ori ta egun atantxe Franco Gudalburua'k Nueva York'en daukan ordezkari baten etxean gizon ez-ezagun bat izan zan eta eskuetan zoŕotxo bat eruan eban etxe aretara ta iñori, be, an berbarik egiteko zoŕuoi laga ta aldendu egin zan.

Edegi eben zoŕotxuoi ta Washington'go España'ko ordezkaritzatik Nueva York'ko konsulari egindako eskutitz edo kartak eukazan.

Oŕ idoro eben agiri baten "Mar Cantabrico" itxasontzia, Nueva York'tik Veracruz'era ta emetik España'ra zelan juango zan aitzen emoten zan.

"Elder Denpser" itxasontzi-taldeko itxasontzien antzeko da "Mar Cantabrico" ta "Elder Denpser" itxasontzien antzera margotu ta eratuteko asmoa ebela itxaso baŕura eldu eitezenean "Mar Cantabrico" be adi razoten eban zoŕo aretan egoan beste agiri batek.

Beste karta edo idazki baten itxasontzi oŕetako agintariak eta España'ko Agintariak alkaŕekin berba iŕatiz edo telegrapiz egiteko euken beran-berarizko erez agertzen zan.

Zoŕooi aŕtu ebanak gauza oŕei jaramon aundirik ez ei eutsen egin lenengotan. Franco'k Nueva York eta inguruetan dabezan beste ordezkari batzuei, be, emon yakoen baŕi ta danok, agiri oŕeik guzuŕezko ta eurak atzipatzeko zirala uste izan eben.

Agiri oŕetan aitzen emoten zanez "Mar Cantabrico" Veracruz'era juan zana jakin ebenean, agiriok iñuenari jaramon egiten asi ziran.

Itxasontzi oŕek Veracruz'tik atara orduko margo asko aŕtu ebala jakin al izan eben gero. Margo oŕeik bere itxurea aldatzeko naiko ziran.

Caribe itxasoa zeaŕ ondo zaindu eben gero "Mar Cantabrico" itxasontzioi. Margo edo kolore aldatzea ta izan aldatzearen baŕi, be, jakin eben. Izan baŕi ori "Adda" zan.

Telegrapiz berba egiteko zein era eban "Mar Cantabrico,,'k eta zein neuŕiz egian jakiñak "Canarias" gudontziko telegrapilariak, "Mar Cantabrico,,'k eta Gobernukoak alkaŕi esaten eutsezan gauza guztien jakitun ziran "Canarias" gudontziko agintariak.

Gibraltar'dik igaro'eko asmoa adieraso eben "Mar Cantabrico" itxasontziko agintariak, baiña Valencia'ko Gobernua'k Bilbao'ra juan eitela agindu eutson. "Canarias" gudontzikoak jakin eben ori, be.

Bizkai'ko Itxas-Kolkoan zan eta paxisten igesi Bilbo'runtz asi zan "Mar Cantabrico" ta bat batera "Canarias" gudontziakin tope egin eban, "Canarias,,'ek ba-ekiazan "Mar Cantabrico" ren ibilera ta asmo guztiak eta.

"Mar Cantabrico,,'ren asmo ta itz egiteko era zeiñek eta zergaitik a... razo eutsen Franco'ren ordezkariei? Autu onetan erantzun eta eztabaida asko doguz.

"Mar Cantabrico,,'ren baŕiak ekiazenak, paxistei baŕi oŕeik zergaitik emon dautsenik ez datu iñork.

Guda-gaiak "Mar Cantabrico,,'ri saldu eutsazanak, gud-gai oŕeik txaŕak zirana igaŕi ez egiuen eta bere lapuŕetea azaldu ez eiten, paxistei aitzen emotea izan daike egia, norbaitek esan dauanez. Eritxi au ezin egiztau daike baiña izkilu ta guda-gai salerosketan ziri ta azpikeri asko izaten da.

LANGILEAK OPOŔEAN

Nueva York. — "Chrysler" belbil lantegietako langiliak opoŕ egin dabe. Langileok beŕogetamaŕ mila inguru dira. "Chevrolet" lantegietakoak be bide bardiña artu dabe.

DIRUA BIDE

Frantze'ra begira

Londres.—Inglateŕa'ko dru-arazo-batzaŕetan, urduri ta itxaropenge dagokiote, Frantze'ko gau-eguneko politikari; Frantze'ri enprestitu bat eskuratzekotan batez ere.

ITXASONTZIAK DIRALA TA

Ingelesen asaŕaldi epelak

Londres. — Aldun batzuen galderai erantzun beaŕa izan dau Eden'ek, Legetxean.

"Mar Bltico" eta "Fernando Ibaŕa" españaŕ ontziok, paxistak atrapau zituen joan dan astean, eta Pasajes eta Ferrol'era eroan zituen. Aŕezkero Alemania'ra biali ba'ditue eztakiala, iñoan.

Ontzi oŕeik, ostera, Inglateŕa'rentzat miñeralez beteta joiazan.

Ori dala-ta, Gobernu ingelesak Salamanca'ko Batzaŕ paxisteari ots-egingo ei dautsa, itxas prankuan ingeles-gayak eroiazan ontziak aŕtu zituelako.

Zama edo kargea oso-osorik biuŕtuteko eskatuko ei dautse, eta oi diran kalteak ordaindu-erazi.

ARDURARIK EZ

Edozein itxasontzi suagatzen dabe

Brest.—Guessant ugarte aurean, España'ko itxasertzetik 560 kilometrora, paxisten "bou" batek "Conde de Zubiria" itxasontziari dunbadoska ekin dautso. Prantzia'ko itxasertzetik amabi kilometrora paxisten "bou" oŕek ogetamaŕ edo beŕogetamaŕ dunbada jaurti eutsozan salerosketa gaiz beteta uan itxasontzi oŕeri.

Prantzia'ko itxasoetan pantzetaŕak daben aginpdea zaintzeko asmoz pantzetai idro-egazkiñak agertu ziranean iges egin eban "bou" oŕek.

"Conde de Zubiria" itxasontzia Brest'eko portura zuzen u zan eta suaga batek, be, ez e... ban jo.

Baleares ugartetik 176 kilometrora "Djebel Antar" pantzetaŕ itxasontzia suagatu ei-eban egazkin batek itxasontzi oŕetatik telegrapiz aitzen emon ebenez ta Prantzia'ko Itxas-Agintariak, itxasontzi oŕeri lagundu egioen Marsella'rako bidean "Foch" gudontzia bialdu ei-eben.